**ADMINISTRAZIO BALDINTZA PARTIKULARREN AGIRIA**

**PLIEGO DE CLÁUSULAS ADMINISTRATIVAS PARTICULARES**

**OBRA KONTRATUA**

**Prozedura irekia Next Generation EU finantzaketarekin**

**CONTRATO DE OBRAS**

**Procedimiento abierto con financiación Next Generation EU**

## Espediente zk.: 2026TUR001

**Xedea:** Tolosaldeko Turismo Jasangarriko Planaren 2. Ardatzeko (Efizientzia Energetikoaren hobekuntza) 1.jarduketa (Tolosaldea oinez eta bizkiletan) gauzatzeko obren kontratua Berreskuratze, Eraldaketa eta Erresilientzia Planaren esparruan, Europar Batasunak finantzatua-Next GenerationEU.

- 1. Lotea: Langaurre atsedenlekua berroneratu eta naturalizatzea.

- 2. Lotea: Tolosako Iurramendi eremuan txirrindularitza eta herritarren arnasgune erabilera sustatuko dituen paisaia antolaketa lana

**Objeto:** Actuación 1, Tolosaldea caminando y en bici, del Eje 2 (Mejora de la Eficiencia Energética) del Plan de Sostenibilidad Turística en Destinos de Tolosaldea, en el marco del Plan de Recuperación, Transformación y Resiliencia, financiado por la Unión Europea-Next GenerationEU.

- Lote 1: Regeneración y naturalización del área recreativa de Langaurre.

- Lote 2: Ordenación paisajística que fomente el uso ciclista y la actividad física de la población en el área de Lurramendi de Tolosa

# OBRAK. Prozedura irekia / OBRAS. Procedimiento abierto

## ADMINISTRAZIO BALDINTZA PARTIKULARREN AGIRIA/ PLIEGO DE CLÁUSULAS ADMINISTRATIVAS PARTICULARES

I.- KONTRATUAREN XEDEA ETA ALDERDI OROKORRAK....4

*1.- KONTRATUAREN XEDEA, APLIKATUKO ZAIZKION ARAUAK ETA ADJUDIKATZEKO MODUA ...4*

*2.- KONTRATUAREN BALIO ZENBATETSIA, LIZITAZIOAREN OINARRIZKO AURREKONTUA ETA LIZITAZIO OINARRIA. GEHIENEKO AURREKONTUA ETA UNITATEKO PREZIOAK. KREDITUA EGOTEA ETA KONTRATUAREN PREZIOA....5*

*3.- PREZIOAK BERRIKUSTEA ....6*

*4.- AGIRIAK, DOKUMENTAZIOA ETA INFORMAZIO OSAGARRIA ....7*

II.– ENPRESA LIZITATZAILEAK ETA LIZITAZIORAKO ONARTZEKO ESKATZEN ZAIEN DOKUMENTAZIOA. 7

*5.- ENPRESA LIZITATZAILEAK. ....7*

*6.- LIZITAZIORAKO ONARTZEKO ESKATZEN DEN DOKUMENTAZIOA. ....9*

*7.- DOKUMENTAZIOAREN KALIFIKAZIOA ....12*

III. ADJUDIKAZIOA ....16

*8.- ESKAINTZEN SAILKAPENA ETA ADJUDIKAZIODUNA IZATEKO PROPOSATZEN DEN ENPRESA LIZITATZAILEAK AURKEZTU BEHARREKO DOKUMENTAZIOA. ....16*

*9.- BEHIN BETIKO BERMEA ....18*

*10.- ADJUDIKAZIOA ETA JAKINARAZPENA ....19*

IV. KONTRATUAREN FORMALIZAZIOA ....21

*11.- KONTRATUA FORMALIZATU AURREKO BETEBEHARRAK ....21*

*12.- KONTRATUAREN FORMALIZAZIOA ....21*

V. KONTRATUA BURUTZEA ....23

*13.- KONTRATUA BURUTZEA ....23*

VI. IZAERA, ARAUBIDE JURIDIKOA ETA JURISDIKZIO ESKUDUNA....42

*14.- IZAERA ETA ARAUBIDE JURIDIKOA....42*

*15.- JURISDIKZIO ESKUDUNA ....42*

I. OBJETO Y CUESTIONES GENERALES DEL CONTRATO ....4

1.- *OBJETO DEL CONTRATO, NORMAS APLICABLES Y FORMA DE ADJUDICACIÓN* ....*4*

*2.- VALOR ESTIMADO DEL CONTRATO, PRESUPUESTO BASE DE LA LICITACIÓN Y TIPO DE LICITACIÓN. PRESUPUESTO MÁXIMO Y PRECIOS UNITARIOS. EXISTENCIA DE CRÉDITO Y PRECIO DEL CONTRATO* ....*5*

*3.- REVISIÓN DE PRECIOS* ....*6*

*4.- PLIEGOS, DOCUMENTACIÓN E INFORMACIÓN COMPLEMENTARIA* ....*7*

II. – EMPRESAS LICITADORAS Y DOCUMENTACIÓN EXIGIDA PARA SU ADMISIÓN A LA LICITACIÓN. 7

5. – *EMPRESAS LICITADORAS.* ....*7*

*6.- DOCUMENTACIÓN EXIGIDA PARA SU ADMISIÓN A LA LICITACIÓN.* ....*9*

*7.- CALIFICACIÓN DE LA DOCUMENTACIÓN* ....*12*

III. ADJUDICACIÓN 9

8.- *CLASIFICACIÓN DE LAS OFERTAS Y DOCUMENTACIÓN A PRESENTAR POR LA EMPRESA LICITADORA PROPUESTA COMO ADJUDICATARIA.* ....*16*

*9.- GARANTÍA DEFINITIVA* ....*18*

*10.- ADJUDICACIÓN Y NOTIFICACIÓN* ....*19*

IV. FORMALIZACIÓN DEL CONTRATO ....21

*11.- OBLIGACIONES PREVIAS A LA FORMALIZACIÓN DEL CONTRATO* ....*21*

*12.- FORMALIZACIÓN DEL CONTRATO* ....*18*

V. EJECUCIÓN DEL CONTRATO ....23

13.- *EJECUCIÓN DEL CONTRATO* ....*23*

VI.-NATURALEZA, RÉGIMEN JURÍDICO Y JURISDICCIÓN COMPETENTE ....42

14.- NATURALEZA Y RÉGIMEN JURÍDICO ....42

15.- JURISDICCIÓN COMPETENTE ....42

| TOLOSALDEA GARATZENI OBRAK EGITEKO KONTRATUA<br><br>ADMINISTRAZIO BALDINTZA PARTIKULARREN AGIRIA | CONTRATO DE OBRAS PARA TOLOSALDEA GARATZEN.<br><br>PLIEGO DE CLÁUSULAS ADMINISTRATIVAS PARTICULARES. |
|---|---|
| **I.- KONTRATUAREN XEDEA ETA ALDERDI OROKORRAK** | **I.- OBJETO Y CUESTIONES GENERALES DEL CONTRATO** |
| **1.- KONTRATUAREN XEDEA, APLIKATUKO ZAIZKION ARAUAK ETA ADJUDIKATZEKO MODUA** | **1.- OBJETO DEL CONTRATO, NORMAS APLICABLES Y FORMA DE ADJUDICACIÓN** |
| 1.1.- Kontratu honen xedea da Tolosaldea Garatzenek onartutako proiektuko obrak egitea. Obrak agiri honen hasierako ezaugarrien taulako A) idatz zatian azaltzen dira.<br><br>Kontratu hau Berreskurapen, Eraldaketa eta Erresilientzia Planaren barruan sartzen da – Europar Batasunak finantzatua – NextGenerationEU. Ministro Kontseiluaren 2021eko uztailaren 13ko Erabakiaren bidez onartu zen behin betiko, Europako Batzordeak 2021eko ekainaren 16an onartutako proposamena oinarri hartuta.<br><br>Proiektuaren xedea Berreskuratze, Eraldaketa eta Erresilientzia Planaren 14. osagaian jasotako 1. inbertsioaren 2. azpineurrian sartutako jarduketa bat da. Zehazki, Tolosaldeko Lurralde Plan Juridikoa, proiektu hau barne hartzen duena, Kontseiluaren Betearazpen Erabakiaren 218. helburuan kokatzen da, helmugetako jasangarritasun turistikoko planetarako aurrekontua esleitzeari buruzkoan, bai eta 220. mugarrian ere, helmugetako jasangarritasun turistikoko planak gauzatzeari buruzkoan, eta 221. helburuan, helmugetako jasangarritasun turistikoko planak amaitzeari buruzkoan. | 1.1.- El objeto del presente contrato lo constituye la ejecución de las obras comprendidas en el Proyecto aprobado por Tolosaldea Garatzen, descritas en el apartado A) del Cuadro de Características que figura al comienzo del presente Pliego.<br><br>El presente contrato se enmarca en el Plan de Recuperación, Transformación y Resiliencia -Financiado por la Unión Europea – NextGenerationEU. Aprobado definitivamente por Acuerdo del Consejo de Ministros de 13 de julio de 2021 sobre la base de la propuesta aprobada por la Comisión Europea el 16 de junio de 2021.<br><br>El objeto del proyecto constituye una actuación incluida en la Inversión 1, submedida 2, comprendida en el Componente 14, del Plan de Recuperación, Transformación y Resiliencia. En concreto, el *PSTD de Tolosaldea* en el que se incluye este proyecto se enmarca en el Objetivo 218 de la Decisión de Ejecución del Consejo, relativo a la adjudicación del presupuesto para los Planes de Sostenibilidad Turística en Destinos, así como en los hitos 220, relativo a la ejecución de los Planes de Sostenibilidad Turística en Destinos, y 221, relativo a la finalización de los Planes de Sostenibilidad Turística en Destinos. |
| 1.2.- Obrak idatzitako proiektuaren arabera egingo dira (haren barruko memoria barnean dela); hau da, kontuan hartuko da proiektuan oinarrizko materialez eta obra unitateen elementuez ezartzen dena. Ondorio guztietarako, obren proiektua, administrazio baldintza partikularren agiri hau, ezaugarrien taula, baldintza teknikoen agiria eta horien eranskinak kontratu agiriak dira, eta halakoak diren aldetik alderdien eskubideak eta betebeharrak arautuko dituzte. Enpresa adjudikaziodunak kontratua formalizatzeko egintzan sinatu beharko ditu, onartzen dituela adierazteko. | 1.2.- La obra se ejecutará según el Proyecto de obras redactado, incluida la Memoria en todo lo referente a la descripción de los materiales básicos o elementos que forman parte de las unidades de obra. A todos los efectos, el Proyecto de obras junto con el presente Pliego de Cláusulas Administrativas Particulares, el Cuadro de Características, el Pliego de Prescripciones Técnicas y sus Anexos tendrán el carácter de documentos contractuales, y como tales regularán los derechos y obligaciones de las partes y deberán ser firmados en prueba de conformidad por la empresa adjudicataria en el acto de formalización del contrato. |
| 1.3.- Kontratazioa honako xedapen hauetan ezartzen denari lotuko zaie: agiri hau; baldintza teknikoen agiria; 9/2017 Legea, azaroaren 8koa, sektore publikoko kontratuena (horren bidez Espainiako antolamendu juridikora aplikatzen dira Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2014ko otsailaren 26ko 2014/23/UE eta 2014/24/UE Zuzentarauak); 1098/2001 Errege Dekretua, urriaren 12koa, Herri Administrazioen Kontratuen Legearen Araubide Orokorra onartzen duena (HAKLAO); Estatuaren obrak kontratatzeko administrazio klausula orokorren agiria (AKOA), abenduaren 31ko 3854/1970 Dekretuak onartzen duena; Estatuko zein Euskal Autonomia Erkidegoko kontratuak arautzen dituzten | 1.3.- La contratación se regulará por lo establecido en este Pliego, el de Prescripciones Técnicas, por Ley 9/2017, de 8 de noviembre, de Contratos del Sector Público, por la que se transponen al ordenamiento Jurídico español las Directivas del Parlamento Europeo y del Consejo, 2014/23/UE y 2014/24/UE, de 26 de febrero de 2014 (LCSP), por el Real Decreto 1098/2001, de 12 de octubre, por el que se aprueba el Reglamento General de la Ley de Contratos de las Administraciones Públicas (RGLCAP), así como por el Pliego de Cláusulas Administrativas Generales para la contratación de obras del Estado aprobado por Decreto 3854/1970 de 31 de diciembre(PCAG) y por cualesquiera otras disposiciones |

| | |
|---|---|
| gainerako xedapen aplikagarri guztiak.<br><br>Gainera, kontratua arau hauetan ezarritakoaren mende dago, Berreskuratze eta Erresilientzia Mekanismoaren esparruan finantzatzeari dagokionez:<br><br>(a) 2021/241 (EB) Erregelamendua, Europako Parlamentuarena eta Kontseiluarena, 2021eko otsailaren 12koa, Berreskuratze eta Erresilientzia Mekanismoa ezartzen duena.<br><br>(b) 36/2020 Errege Lege Dekretua, abenduaren 30ekoa, Administrazio Publikoa modernizatzeko eta Berreskuratze, Eraldaketa eta Erresilientzia Plana gauzatzeko premiazko neurriak onartzen dituena.<br><br>(c) HFP/1030/2021 Agindua, irailaren 29koa, Berreskuratze, Eraldaketa eta Erresilientzia Planaren kudeaketa-sistema konfiguratzen duena.<br><br>(d) HFP/1031/2021 Agindua, irailaren 29koa, Estatuko, Autonomia Erkidegoko eta Tokiko Sektore Publikoko erakundeek Berreskuratze, Eraldaketa eta Erresilientzia Plana osatzen duten neurrien mugarrien eta helburuen betetze-mailaren eta aurrekontu- eta kontabilitate-betearazpenaren jarraipena egiteko eman beharreko informazioaren prozedura eta formatua ezartzen dituena.<br><br>(e) HFP/55/2023 Agindua, urtarrilaren 24koa, Berreskuratze, Eraldaketa eta Erresilientzia Plana gauzatzen duten prozeduretako interes-gatazkaren arriskuaren azterketa sistematikoari buruzkoa.<br><br>(f) Gobernu Kontseiluaren 2022ko martxoaren 29ko Erabakia, "Berreskuratzeko, Eraldatzeko eta Erresilientziarako Plana betearaztean eskatzen diren iruzurraren aurkako baldintzak, interes-gatazka, finantzaketa bikoitza eta estatu-laguntzak eta ingurumenari egindako kalte ez esanguratsua estaltzeko neurrien plana" onartzen duena (Jaurlaritzaren Idazkaritzako eta Legebiltzarrarekiko Harremanetarako zuzendariaren apirilaren 6ko 40/2022 Ebazpenaren bidez argitaratua).<br><br>1.4.- Kontratua prozedura irekiaren bitartez adjudikatuko da; prozedura hori SPKLko 156 - 158 bitarteko artikuluek eta HAKLAOko edo horren ordezko arau xedapeneko artikulu egokiek arautzen dute.<br><br>**<u>2.- KONTRATUAREN BALIO ZENBATETSIA, LIZITAZIOAREN OINARRIZKO AURREKONTUA ETA LIZITAZIO OINARRIA. GEHIENEKO AURREKONTUA ETA UNITATEKO PREZIOAK. KREDITUA EGOTEA ETA KONTRATUAREN PREZIOA</u>**<br><br>2.1.- Kontratuaren balio zenbatetsia, lizitazioaren oinarrizko aurrekontuaren zenbatekoa eta lizitazio oinarria agiri honetako ezaugarrien taulako B) idatz zatian zehazten dira.<br><br>Kontratuaren prezioa unitateko prezioen bitartez ezartzen bada Administrazioaren beharrizanen arabera, kontratuaren gehieneko aurrekontua eta unitateko prezioak agiri honetako ezaugarrien taulako B) idatz zatian agertzen direnak izango | que regulen la contratación tanto a nivel estatal como de la Comunidad Autónoma de Euskadi y que resulten aplicables en el ámbito de la misma.<br><br>Además, el contrato está sujeto a lo establecido en las siguientes normas, en relación con su financiación en el marco del Mecanismo de Recuperación y Resiliencia:<br><br>(a) Reglamento (UE) número 2021/241 del Parlamento Europeo y del Consejo, de 12 de febrero de 2021, por el que se establece el Mecanismo de Recuperación y Resiliencia.<br><br>(b) Real Decreto-ley 36/2020, de 30 de diciembre, por el que se aprueban medidas urgentes para la modernización de la Administración Pública y para la ejecución del Plan de Recuperación, Transformación y Resiliencia.<br><br>(c) Orden HFP/1030/2021, de 29 de septiembre, por la que se configura el sistema de gestión del Plan de Recuperación, Transformación y Resiliencia.<br><br>(d) Orden HFP/1031/2021, de 29 de septiembre, por la que se establece el procedimiento y formato de la información a proporcionar por las Entidades del Sector Público Estatal, Autonómico y Local para el seguimiento del cumplimiento de hitos y objetivos y de ejecución presupuestaria y contable de las medidas de los componentes del Plan de Recuperación, Transformación y Resiliencia.<br><br>(e) Orden HFP/55/2023, de 24 de enero, relativa al análisis sistemático del riesgo de conflicto de interés en los procedimientos que ejecutan el Plan de Recuperación, Transformación y Resiliencia.<br><br>(f) Acuerdo del Consejo de Gobierno, de 29 de marzo de 2022, por el que se aprueba el “Plan de medidas para cubrir los requisitos antifraude, conflicto de interés, doble financiación y ayudas de estado y daño no significativo al medio ambiente, exigidos en la ejecución del Plan de Recuperación, Transformación y Resiliencia” (publicado mediante Resolución 40/2022, de 6 de abril, del Director de la Secretaría del Gobierno y de Relaciones con el Parlamento).<br><br>1.4.- El contrato se adjudicará por el procedimiento abierto previsto en los artículos 156 a 158 de la LCSP, y por los artículos correspondientes del RGLCAP o disposición reglamentaria que la sustituya.<br><br>**<u>2.- VALOR ESTIMADO DEL CONTRATO, PRESUPUESTO BASE DE LA LICITACIÓN Y TIPO DE LICITACIÓN. PRESUPUESTO MÁXIMO Y PRECIOS UNITARIOS. EXISTENCIA DE CRÉDITO Y PRECIO DEL CONTRATO</u>**<br><br>2.1.- El valor estimado del contrato, el importe del presupuesto base de la licitación y el tipo de licitación son los que figuran en el apartado B) del Cuadro de Características del presente Pliego.<br><br>En caso de que el precio del contrato se formule en términos de precios unitarios en función de las necesidades de la Administración, el presupuesto máximo del contrato y los precios unitarios son los que figuran en el apartado B) del |

| | |
|---|---|
| dira. | Cuadro de Características del presente Pliego. |
| 2.2.- Kreditu nahikoa dago kontratu honen burutzapenaren ondorioz Administrazioak edukiko dituen betebehar ekonomikoei aurre egiteko; ezaugarrien taulako C) idatz zatiko aurrekontu aplikazioan zehazten da. | 2.2.- Existe el crédito preciso para atender a las obligaciones económicas que se deriven para la Administración del cumplimiento de este contrato, consignado en la aplicación presupuestaria que figura en el apartado C) del Cuadro de Características. |
| Adierazten bada gastu espediente baten izapidetze aurreratua dela, prestazioak egiten hasteko ezinbestekoa izango da ekitaldiko indarreko aurrekontu taldean kreditu egoki eta nahikoa egotea. | En el caso de que se indique que se trata de la tramitación anticipada de un expediente de gastos, el inicio de la ejecución de las prestaciones quedará condicionado a la existencia de crédito adecuado y suficiente en la agrupación presupuestaria vigente en el ejercicio al que corresponda. |
| 2.3.- Kontratuaren prezioa adjudikazioan ezarriko da; ezin da izan Administrazioak ezartzen duen lizitazio oinarria baino gehiago. | 2.3.- El precio del contrato será el que resulte de la adjudicación del mismo y no podrá superar el tipo de licitación formulado por la Administración. |
| Ondorio guztietarako, honako hauek sartzen dira kontratuaren prezioan: enpresa kontratistak kontratatutako obra burutzeko egin beharreko gastu guztiak, zuzenekoak zein zeharkakoak; obren ikuskapenagatik eta zuzendaritzagatik ordaindu beharreko tasak eta indarreko xedapenen arabera aplikatu beharreko gainerako tasa guztiak; zerga eta lizentzia guztiak, udalenak, probintziakoak zein Estatukoak. | A todos los efectos, se entenderá que el precio del contrato comprende todos los gastos directos e indirectos que la empresa contratista deba realizar para la normal ejecución de la obra contratada, las tasas por prestación de los trabajos de inspección y dirección de las obras y cualesquiera otras tasas que resulten de aplicación según las disposiciones vigentes, y toda clase de impuestos y licencias tanto municipales, como provinciales y estatales. |
| **3.- PREZIOAK BERRIKUSTEA** | **3.- REVISIÓN DE PRECIOS** |
| 3.1.- Enpresa kontratistak bere gain hartuko ditu kontratua betetzearen arriskuak. | 3.1.- La ejecución del contrato se realizará a riesgo y ventura de la empresa contratista. |
| 3.2.- Prezioen berrikuspena bidezkoa denez zehazteko, ezaugarrien taulako D) idatz zatian ezartzen dena hartuko da aintzat. Berrikuspena bidezkoa ez bada, idatz zati horretan adieraziko da. Aldiz, prezioen berrikuspena bidezkoa bada, idatz zati horretan berrikuspenerako aplikatuko diren indizeak edo formula polinomikoak zehaztuko dira. | 3.2.- Para la procedencia inicial o para la improcedencia de la revisión de precios, se estará a lo indicado en el apartado D) del Cuadro de Características. Cuando la revisión no proceda, se hará constar así en el expresado apartado. Cuando la revisión de precios inicialmente proceda, se indicará en el citado apartado el índice o los índices o fórmulas polinómicas que se aplicarán, en su caso, para la citada revisión. |
| Prezioen berrikuspenaren araubide juridikoa SPKLko 103 - 105 bitarteko artikuluetan eta HAKLAOko 104., 105. eta 106. artikuluetan ezartzen da. Prezioen berrikuspenerako formulak urriaren 7ko 1359/2011 Errege Dekretuak onartzen ditu. | El régimen jurídico de la revisión de precios será el establecido en los artículos 103 a 105 de la LCSP y en los artículos 104, 105 y 106 del RGLCAP. Las fórmulas-tipo generales de revisión de precios del contrato de obras se encuentran aprobadas en el Real Decreto 1359/2011, de 7 de octubre. |
| 3.3.- Ezaugarrien taulan prezioen berrikuspena ezartzen ez bada, kontratua burutzeko epealdia luzatzeak ez du inolaz ere berrikuspena eragingo, luzapenaren arrazoia Administrazioari egotzi ezean edo ezinbestekoa izan ezean (ezinbesteko kasuak SPKLko 239. artikuluan ezartzen dira). | 3.3.- En el supuesto de que el Cuadro de Características no contemple la revisión de precios dicha circunstancia no se modificará por la prórroga del plazo de ejecución siempre que ésta no esté motivada por causa imputable a la Administración o por casos de fuerza mayor entendiendo por tal los establecidos en el artículo 239 de la LCSP. |
| 3.4.- Ezaugarrien taulan prezioen berrikuspena ezartzen bada, aplikatu ahal izateko ezinbestekoa da bi baldintza hauek betetzea: kontratuaren zenbatekoaren ehuneko 20 gauzatuta egotea eta kontratua formalizatu zenetik bi urte igarota izatea. Beraz, ez gauzatze ehunekoa (ehuneko 20) ez kontratuaren iraupeneko lehen bi urteak, kontraren formalizaziotik zenbatuta, ezin dira berrikusi, SPKLko 103. artikuluan ezartzen den bezala. | 3.4.– En el supuesto de que el Cuadro de Características contemple la revisión de precios, ésta únicamente procederá cuando el contrato se hubiese ejecutado en el 20 por 100 de su importe y hayan transcurrido dos años desde su formalización, de tal modo que ni el porcentaje del 20 por 100 ni los dos primeros años de ejecución, contados desde la formalización del contrato pueden ser objeto de revisión, tal y como establece el artículo 103 de la LCSP. |

**4.- AGIRIAK, DOKUMENTAZIOA ETA INFORMAZIO OSAGARRIA**

Administrazio baldintza partikularren agiria, baldintza teknikoen agiria eta gainerako dokumentazioa kontratatzailearen profilean eskuratu ahal izango dira; gainera, SPKLko 138.2 artikuluan aipatzen diren kasuetan, ezaugarrien taulako E) idatz zatian aipatzen den Administrazioaren zerbitzuaren bulegoetan eskuratu ahal izango dira jendaurreko ordutegian, eskaintzak aurkezteko epealdian.

Eskaintza aurkeztu aurretik enpresa interesdunek zerbitzu horretara jo ahal izango dute lizitazioaren inguruabar berezien berri jakiteko.

Baldin eta, ezarritako epealdiaren barruan, enpresa interesdun batek agiriei eta gainerako dokumentazioari buruzko informazio gehiago eskatzen badu, SPKLko 138. artikuluan eta HAKLAOko 78. artikuluan xedatzen dena aplikatuko da.

Agiriez eta dokumentazio osagarriez eskatzen den informazioa eskaintzak jasotzeko ezarritako epealdia amaitu baino sei egun lehenago gutxienez eman behar da (izapidetzea presazkoa bada, hiru egun lehenago; salbuespena: harmonizatutako arauei lotutako kontratuetan, lau egun lehenago), baldin eta eskaera gutxienez hamabi egun lehenago aurkezten bada edo kontratazio organoak kontratuaren ezaugarriak eta prozedura kontuan hartuta agirietan ezartzen duen epealdian, ezaugarrien taulako E) idatz zatian ezartzen den bezala.

Baldin eta eskaeraren xedea administrazio baldintza partikularren agirian, obra proiektuan edo gainerako dokumentazioan ezartzen den zerbait argitzea bada, erantzuna loteslea izango da eta kontratatzailearen profilean agertuko da.

Kontratuaren espedientearen inguruko informazio guztiak eta Administrazioaren kontratu jardunaren inguruko datu eta informazio guztiak kontratatzailearen profilean agertuko dira, SPKLko 63. artikuluan ezartzen den bezala.

Kontratatzailearen profila aztertzeko Administrazioaren atarian sartu behar da; atari aurrean aipatutako ezaugarrien taulako E) idatz zatian zehazten da.

**II.– ENPRESA LIZITATZAILEAK ETA LIZITAZIORAKO ONARTZEKO ESKATZEN ZAIEN DOKUMENTAZIOA.**

**5.- ENPRESA LIZITATZAILEAK.**

5.1. Kontratuaren lizitaziorako eskaintza aurkeztu ahal izango dute (aurrerago zehaztuko da nola) Espainiako eta atzerriko pertsona fisikoek zein juridikoek, baldin eta jarduteko gaitasun osoa badute, kontratatzea debekatuta ez badute SPKLko 71. artikuluan ezartzen denaren arabera, eta kaudimena eta lanbide gaitasuna edo gaitasun teknikoa frogatzen badituzte edo, SPKLk eskatzen duen kasuetan, behar den sailkapena badute.

**4.- PLIEGOS, DOCUMENTACIÓN E INFORMACIÓN COMPLEMENTARIA**

Los Pliegos de Cláusulas Administrativas Particulares, Prescripciones Técnicas y demás documentación complementaria, estarán disponibles en el Perfil de Contratante y, en los casos señalados en el artículo 138.2 de la LCSP, en las Oficinas del Servicio de la Administración citado en el apartado E) del Cuadro de Características, durante las horas de oficina al público, hasta la terminación del plazo para la presentación de proposiciones.

Con anterioridad a la presentación de proposiciones, las empresas interesadas podrán tomar contacto con dicho Servicio al objeto de tratar sobre las circunstancias específicas que concurren en la presente licitación.

En caso de que una empresa interesada solicite, en tiempo hábil, información adicional sobre los pliegos y demás documentación complementaria, se estará a lo dispuesto en el artículo 138 de la LCSP y artículo 78 del RGLCAP.

La información que se solicite sobre los pliegos y sobre la documentación complementaria deberá facilitarse, al menos, seis días antes de la fecha límite fijada para la presentación de ofertas (tres en el caso de tramitación urgente, excepto en los contratos sujetos a regulación armonizada, que será cuatro), siempre que la petición se haya presentado al menos con doce días de antelación o con la antelación que el órgano de contratación, atendidas las circunstancias del contrato y del procedimiento, haya señalado en los pliegos, tal y como se establece en el apartado E) del Cuadro de Características.

En el caso en que lo solicitado sean aclaraciones a lo establecido en los Pliegos de Cláusulas Administrativas Particulares, el Proyecto de obras o resto de documentación, las respuestas tendrán carácter vinculante y se harán públicas en el Perfil de Contratante.

Toda la información relativa al expediente contractual así como cualquier otro dato e información referente a la actividad contractual de la Administración se publicará en el Perfil de Contratante, de acuerdo con lo establecido en el artículo 63 de la LCSP.

El acceso público al Perfil de Contratante se realizará a través del portal institucional de la *Administración*, indicado en el citado apartado E) del Cuadro de Características.

**II. – EMPRESAS LICITADORAS Y DOCUMENTACIÓN EXIGIDA PARA SU ADMISIÓN A LA LICITACIÓN.**

**5. – EMPRESAS LICITADORAS.**

5.1. Podrán presentar ofertas en la licitación objeto del contrato y en la forma que se especifica más adelante, las personas naturales o jurídicas, españolas o extranjeras que, tengan plena capacidad de obrar, no estén incursas en alguna prohibición de contratar establecidas en el artículo 71 de la LCSP, y acrediten sus solvencias económica y financiera y técnica o profesional, o, en los casos en que así lo exija la LCSP, se encuentren debidamente clasificadas.

| | |
|---|---|
| Gainera, enpresek kontratuaren xede den jarduera edo zerbitzua egiteko eskatzen den enpresa edo lanbide gaikuntza eduki behar dute (ezaugarrien taulako F idatz zatian zehazten da). | Las empresas deberán contar, asimismo, con la habilitación empresarial o profesional que, en su caso, sea exigible para la realización de la actividad o prestación que constituya el objeto del contrato, especificada en el apartado F) del Cuadro de Características. |
| Pertsona juridiko bat kontratu baten lizitaziora aurkeztu ahal izateko ezinbestekoa da kontratuaren prestazioak haren helburuen, xedearen edo jardueren esparruan egotea estatutuen edo sorrera arauen arabera. | Las personas jurídicas sólo podrán licitar a contratos cuyas prestaciones estén comprendidas dentro de los fines, objeto o ámbito de actividad que, a tenor de sus estatutos o reglas fundacionales, les sean propios. |
| Kontratu bat sinatzeko kaudimena eta gaitasuna frogatu nahi dituen enpresa batek beste entitate batzuetara jo dezake (ez da kontuan hartuko haiekiko harreman juridikoa nolakoa den), haien baliabideak erabiltzeko. Horretarako, frogatu behar du kaudimena eta gaitasuna kontratuaren iraunaldi osoan edukiko dituela eta beste entitate horiek ez dutela debekatuta kontratazioa SPKLko 75. artikuluak ezartzen duenaren arabera. | Para acreditar la solvencia necesaria para celebrar un contrato determinado, la empresa podrá basarse en la solvencia y medios de otras entidades, independientemente de la naturaleza jurídica de los vínculos que tenga con ellas, siempre que demuestre que, durante toda la ejecución del contrato, dispondrá efectivamente de esa solvencia y medios y la entidad a la que recurra no está incursa en ninguna prohibición de contratar, de acuerdo con lo establecido en el artículo 75 de la LCSP. |
| SPKLko 69. artikuluarekin bat etorriz berariaz eratzen diren aldi baterako enpresa elkarteek ere aurkez dezakete eskaintza. Elkarteko enpresa bakoitzak bere jarduteko gaitasuna, finantza eta ekonomia kaudimena eta gaitasun teknikoa edo lanbide gaitasuna frogatu behar ditu, eta horretarako ondoko baldintzetan adierazten agiriak aurkeztu behar ditu. Agiri pribatu batean eskaintza egiten duten enpresen izenak eta gainerako datuak adierazi behar dira, bakoitzaren partaidetza eta kontratuaren indarraldian elkartearen ordezkaritza edukiko duen pertsona edo entitatea zehaztu behar dira, eta kideek adierazi behar dute konpromisoa hartzen dutela aldi baterako enpresa elkartea eratzeko adjudikazioa jasoz gero. Agiri hori elkarteko enpresa guztien ordezkariek sinatu behar dute. | Podrán, igualmente, presentar proposiciones las uniones de empresas que se constituyan temporalmente al efecto de conformidad con el artículo 69 de la LCSP. Cada una de las empresas que componen la agrupación, deberá acreditar su capacidad de obrar y la solvencia económica, financiera y técnica o profesional, con la presentación de la documentación a que hacen referencia las cláusulas siguientes, debiendo indicar en documento privado los nombres y circunstancias de las empresas que la suscriban, la participación de cada una de ellas y la persona o entidad que, durante la vigencia del contrato ha de ostentar la plena representación de todas ellas frente a la Administración y que asumen el compromiso de constituirse formalmente en Unión Temporal de Empresas en caso de resultar adjudicataria. El citado documento deberá estar firmado por los/as representantes de cada una de las empresas componentes de la Unión. |
| 5.2. Lizitazioan parte hartzeko eskaera (eta, behar denean, eskaintza) aurkezteak berekin ekarriko ditu honako hauek:<br>- agiri honetako baldintza guztiak eta ezaugarrien taulan, obra proiektuan eta kontratuko gainerako agirietan zehazten den guztia onartzea, inolako baldintzarik gabe eta salbuespenik aplikatu gabe.<br>- aurkeztutako datu guztiak egiazkoak direla eta kontratuaren xede diren prestazio guztiak kontratatzeko eskatzen diren baldintza guztiak betetzen dituela berresten duen erantzukizunpeko adierazpena.<br>- kontratazio mahaiarentzako eta organoarentzako baimena, Sektore Publikoko Lizitatzaileen eta Enpresa Sailkatuen Erregistro Ofizialean edo Europar Batasuneko estatu bateko eragile ekonomikoen zerrenda ofizialetan bildutako datuak aztertu ahal izateko. | 5.2. La presentación de la solicitud de participación y, en su caso, de la proposición supone:<br>- la aceptación incondicionada de las cláusulas de este Pliego, las especificaciones del Cuadro de Características, del Proyecto de obras y del resto de los documentos contractuales, en su totalidad y sin salvedad o reserva alguna.<br>- la declaración responsable de la exactitud de todos los datos presentados y de que reúne todas y cada una de las condiciones exigidas para la contratación de las prestaciones objeto de la contratación.<br>- la autorización a la Mesa y al Órgano de Contratación para consultar los datos recogidos en el Registro Oficial de Licitadores y Empresas Clasificadas del Sector Público o en las listas oficiales de operadores económicos de un Estado miembro de la Unión Europea. |
| Halaber, aurkezpen horrek ondorio hau ere izango du: enpresa lizitatzaileak, zuzenean bertaratuta edota beste | También se entiende que la empresa licitadora ha conocido, mediante visita directa, y/u otros medios complementarios los terrenos y es sabedora de las posibilidades de los |

| | |
|---|---|
| bitarteko batzuez baliatuta, lurrak aztertu dituela pentsatuko da, eta badakiela nolakoak diren kontratuan obrak burutzeko garraioaz, instalazioez, uraren hustuketaz eta gainerako egitekoez ezarritakoa betetzeko. Eskaintzak aurkezteko epealdian, ezaugarrien taulako E) idatz zatian aipatzen den zerbitzuak obren kokalekuari buruzko argibideak eta aplikatuko diren agirien eta arauen inguruko informazioa emango dizkie enpresa interesdun guztiei. Ondorioz, lizitatzaile batek alegatzen badu ez dituela ezagutzen lurrak edo ez dakiela egin beharreko obraren berri, edo ez duela ezagutzen kontratuan edo hari atxikitako agirietako batean ezarritako zerbait edo aplikatu beharreko legeria edo arautegia, horrek ez du salbuetsiko kontratua bete beharretik.<br><br>Zuzenean zein zeharka (lotutako enpresen bidez) kontratu baten zehaztasun teknikoak edo hura prestatzeko agiriak idazten parte hartzen duten enpresek ezin izango dute lehiatu kontratu hori adjudikatzeko prozeduran, ez eta kontratazio prozedura prestatzeko lanetan kontratazio organikoari aholkuak ematen dizkioten enpresek ere, baldin eta jardun horren ondorioz lehia zapuzten bada edo enpresak onura bereganatzen badu gainerako lizitatzaileekiko lehian.<br><br>Halaber, obra eta instalazio batzuen burutzapena zaintzeko, gainikusteko, kontrolatzeko eta zuzentzeko kontratuak ezin zaizkio adjudikatu obren kontratua adjudikatu zaion enpresa berari, ez eta horri lotutako enpresei ere. Lotutako enpresak dira Merkataritzako Kodeko 42. artikuluko kasuetan daudenak.<br><br>Enpresa lizitatzaile bakoitzak eskaintza bat bakarrik aurkeztu ahal izango du. Banako lizitatzaileek ezin dute aurkeztu beste eskaintzarik aldi baterako enpresa elkarte batean. Arau hauek hausteak berekin ekarriko du aurkeztutako eskaintza guztiak ez onartzea.<br><br>Hala ere, ezaugarrien taulako G) idatz zatian aldaera batzuk aurkezteko aukera ezar daiteke. Hala gertatzen denean, aldaerak bertan zehazten diren elementuekin eta baldintzekin bat etorriz aurkeztu behar dira.<br><br>Horrelako kasuetan, ohiko eskaintza ekonomikoarekin batera proposatzen diren gainerako soluzioei dagozkienak ere aurkeztu behar dira; gainera, eskaintza ekonomikoan eskatzen diren datuak adierazi behar dira eta aldaeren justifikazioak aurkeztu behar dira.<br><br>**6.- LIZITAZIORAKO ONARTZEKO ESKATZEN DEN DOKUMENTAZIOA.**<br><br>Lizitazio eta kontratazio elektronikoen sistemari esker eskaintzak eta parte hartzeko eskaerak aurkez daitezke, agiriak bidali eta jaso daitezke, eta kontratuak sinatu daitezke. Sistema hori Administrazioaren atarian dago | mismos en el aspecto físico, en relación con los servicios exigidos de transportes, instalaciones, evacuación de agua y demás necesidades para la realización de las obras. El Servicio que figura en el citado apartado E) del Cuadro de Características, durante el plazo de presentación de ofertas, facilitará a cualquier empresa interesada que lo solicite su emplazamiento e información sobre la documentación y normativa aplicable. En consecuencia la alegación de desconocimiento del terreno, de las circunstancias de la obra, así como del contrato en cualquiera de sus términos, de los documentos anejos que forman parte del mismo o de la legislación o normas aplicables, no eximirá a la empresa contratista de su cumplimiento.<br><br>No podrán concurrir en este procedimiento las empresas que, bien directamente o bien indirectamente mediante empresas a ellas vinculadas, hayan participado en la elaboración, en su caso, de las especificaciones técnicas o de los documentos preparatorios del contrato o hubieran asesorado al órgano de contratación durante la preparación del procedimiento de la presente contratación, siempre que dicha participación pueda falsear la competencia o suponer un trato privilegiado con respecto al resto de las empresas licitadoras.<br><br>Asimismo, los contratos que tengan por objeto la vigilancia, supervisión, control y dirección de la ejecución de las obras e instalaciones no podrán adjudicarse a las mismas empresas adjudicatarias de los correspondientes contratos de obra, en su caso, ni a las empresas a éstas vinculadas, entendiéndose por tales las que se encuentran en alguno de los supuestos previstos en el artículo 42 de Código de Comercio.<br><br>Cada empresa licitadora no podrá presentar más que una sola proposición. Tampoco podrá suscribir ninguna propuesta en agrupación temporal con otras empresas, si lo ha hecho individualmente. La infracción de estas normas dará lugar automáticamente a la no admisión de todas las proposiciones por ella presentadas.<br><br>No obstante, cuando se haya previsto en el apartado G) del Cuadro de Características las empresas licitadoras podrán presentar más de una variante, conforme a los elementos y condiciones que se determinen en el mismo.<br><br>En ese caso, presentarán, junto con la proposición económica normal, las demás proposiciones que correspondan a las distintas soluciones que aporten, haciendo constar la justificación de cada una de ellas además de los datos exigidos en el modelo de proposición económica.<br><br>**6.- DOCUMENTACIÓN EXIGIDA PARA SU ADMISIÓN A LA LICITACIÓN.**<br><br>El sistema de licitación y contratación electrónicas permite presentar proposiciones y solicitudes de participación, enviar y recibir documentos y firmar contratos, y se encuentra accesible a través del portal institucional de la Administración, indicado en el citado apartado E) del Cuadro |

| | |
|---|---|
| (ezaugarrien taulako E idatz zatian aipatzen da).<br><br>Eskaintzak eta parte hartzeko eskaerak egiteko lizitazio eta kontratazio elektronikoen sistema hori erabili behar da, XIII. eranskinean azaltzen diren jarraibideak aintzat hartuz. Ezaugarrien taulako I) idatz zatian aipatzen den epealdiko azken egunera arte egin ahal izango dira. Azken eguna baliogabea bada, epealdia hurrengo egun baliodunera luzatuko da.<br><br>Baldin eta, SPKLko hamabosgarren xedapen gehigarrian azaltzen diren kasuetan, ez badira nahitaez erabili behar baliabide elektronikoak eskaintzak eta parte hartzeko eskaerak aurkezteko, dokumentazioa entitate kontratatzailearen erregistro orokorrean aurkeztu behar da (egoitza ezaugarrien taulako H idatz zatian zehazten da) edo postaz bidali behar da; hori ezaugarrien taulako I) idatz zatian zehazten den epealdiko azken eguneko arratsaldeko 14:30ak arte egin ahal izango da (azken egunean jendearen arretarako ordutegi berezia badago, eskaintzak eta eskaerak eguerdiko 12:30ak arte aurkeztu ahal izango dira erregistro orokorrean). Azken eguna baliogabea bada, epealdia hurrengo egun baliodunera luzatuko da.<br><br>Enpresa lizitatzaileak bi edo hiru gutun azaletan (A, B eta C, ezaugarrien taulako J idatz zatian ezarriz gero) aurkeztu behar du dokumentazioa, itxita. Honako datu hauek idatzi behar ditu denetan, erraz irakurtzeko moduan:<br><br>a) lizitazioa<br>b) enpresaren izena<br>c) eskaintza sinatzen duenaren izen-abizenak, eta enpresan duen kargua<br><br>Gutun azalak nahitaez sinatu behar ditu enpresa lizitatzailearen ordezkariak.<br><br>Eskaintza aldi baterako enpresa elkartea eratzeko konpromisoa hartu duten enpresa batzuek aurkezten badute, denen ordezkariek sinatu behar dute.<br><br>Eskaintza eta atxikitako dokumentazioa postaz bidaliz gero, postetxean bidalketa egin den eguna frogatu behar da eta egun berean entitatearen Erregistro Orokorrari bidalketaren berri eman behar zaio posta elektronikoaren bidez. Gainera, bidalketaren berri bidal daiteke posta elektronikoz (helbidea ezaugarrien taulako E idatz zatian zehazten da), SPKLko 80. artikuluan ezartzen den bezala.<br><br>Bi betekizunok bete ezean, ez dira onartuko epealdia amaitu ondoren aurkezten diren dokumentazioak. Egun horretatik aurrera, egutegiko hamar egunetan dokumentazioa aurkezten ez bada, jada ez da inola ere onartuko. | de Características.<br><br>La presentación de proposiciones y solicitudes de participación se llevará a cabo utilizando dicho sistema de licitación y contratación electrónicas, de acuerdo con las instrucciones que se contienen en el Anexo XIII, y podrá realizarse hasta el último día del plazo señalado en el apartado I) del Cuadro de Características. Si el último día del plazo fuera inhábil, éste se entenderá prorrogado al primer día hábil siguiente.<br><br>En el caso de que, por cumplirse alguno de los supuestos señalados en la disposición adicional decimoquinta de la LCSP, no sea obligada la utilización de medios electrónicos para la presentación de proposiciones y solicitudes de participación, la documentación deberá presentarse en el Registro General de la entidad contratante, situado en el domicilio que se indica en el apartado H) del Cuadro de Características, o enviados por correo, y podrá realizarse hasta las 14 horas 30 minutos del último día del plazo señalado en el apartado I) del Cuadro de Características (si el último día fuera de horario especial de atención al público la presentación en el Registro General será hasta las 12 horas 30 minutos). Si el último día del plazo fuera inhábil, éste se entenderá prorrogado al primer día hábil siguiente.<br><br>La empresa licitadora deberá presentar dos o tres sobres cerrados (A, B y C, en el caso de que así se prevea en el apartado J) del Cuadro de Características) con la documentación que luego se especifica, indicando en cada uno de ellos:<br><br>a) la licitación a que concurre<br>b) denominación de la empresa.<br>c) nombre y apellidos de quien firme la proposición y el carácter con que lo hace, todo ello de forma legible<br><br>Los sobres deberán estar, necesariamente, firmados por la persona que represente a la empresa licitadora.<br><br>Si la proposición la realizan varias empresas con el compromiso de constituirse en Unión Temporal de Empresas, deberá estar firmada por la persona representante de cada una de ellas.<br><br>En el caso de que la proposición y documentación aneja sea enviada por correo postal, deberá justificarse la fecha de imposición del envío en la oficina de Correos y anunciar al Registro General de la entidad, la remisión de la solicitud mediante correo electrónico en el mismo día. También podrá anunciarse por correo electrónico a la dirección señalada en el apartado E) del Cuadro de Características, en los términos previstos en el artículo 80 del RGLCAP.<br><br>Sin la concurrencia de ambos requisitos no será admitida la documentación si es recibida con posterioridad a la fecha y hora de la terminación del plazo de presentación. Transcurridos diez días naturales siguientes a la indicada fecha sin haberse recibido la documentación, ésta no será admitida en ningún caso. |

| | |
|---|---|
| Eskaintza aurkeztu ondoren lizitatzaileak ezin izango du atzera egin, bidezko arrazoia daukala frogatu ezean. | Una vez presentada una proposición no podrá ser retirada bajo ningún pretexto salvo causa justificada. |
| 6.1.- **C GUTUN AZALA: ESKAINTZA EKONOMIKOA ETA FORMULEN BITARTEZ EBALUA DAITEZKEEN IRIZPIDEEN INGURUKO DOKUMENTAZIOA.** Eskaintza ekonomikoan lizitazioaren xede diren obrak burutzeko prezioaren zenbatekoa adierazi behar da. Aparteko partida batean zenbateko horri dagokion balio erantsiaren gaineko zergaren karga zehaztu behar da (eredua I. eranskinean). | 6.1.- **SOBRE C: PROPOSICIÓN ECONÓMICA Y DOCUMENTACIÓN RELATIVA AL RESTO DE CRITERIOS EVALUABLES MEDIANTE FÓRMULAS**. La proposición económica expresará el valor ofertado como precio del contrato para la ejecución de las obras objeto de licitación, indicándose, como partida independiente el importe del Impuesto sobre el Valor Añadido que deba ser repercutido, según el modelo que figura en el Anexo I. |
| Gainera, eskaintza ezaugarrien taulako M) idatz zatian adierazten diren formula bidezko adjudikazio irizpideen arabera baloratzeko behar diren agiriak aurkeztu behar dira. | Se aportarán, además, los documentos que permitan valorar las ofertas de acuerdo con el resto de criterios de adjudicación indicados en el apartado M) del Cuadro de Características como evaluables mediante fórmulas. |
| 6.2.- **B GUTUN AZALA: BALDINTZA TEKNIKOAK, BALIO JUDIZIOA EGINEZ APLIKATZEN DIREN IRIZPIDEEI DAGOKIEN DOKUMENTAZIOA ETA GIZA BALIABIDEAK ETA BALIABIDE MATERIALAK ATXIKITZEKO KONPROMISOA**. Ezaugarrien taulako J) idatz zatian ezarriz gero, gutun azal honetan honako dokumentu hauek sartu behar dira: ezaugarrien taulako M) idatz zatian ezartzen diren adjudikazio irizpideak (formula bidez ebaluatu ezin direnak) baloratzeko behar diren dokumentuak; baldintza teknikoen agirian aipatzen diren gainerako dokumentu guztiak. | 6.2.- **SOBRE B: REQUISITOS TÉCNICOS, DOCUMENTACIÓN RELATIVA A LOS CRITERIOS CUYA PONDERACIÓN DEPENDE DE UN JUICIO DE VALOR Y COMPROMISO DE ADSCRIPCIÓN DE MEDIOS PERSONALES Y MATERIALES**. En el caso de que así se prevea en el apartado J) del Cuadro de Características, deberán incluirse en este sobre aquellos documentos que permitan valorar los criterios de adjudicación establecidos en su apartado M) no evaluables mediante fórmulas, así como aquellos otros documentos que se prevean en el Pliego de Prescripciones Técnicas. |
| Ezaugarrien taulako J) idatz zatian ezarriz gero, Administrazioak enpresa lizitatzaileei eskatu ahal izango die kaudimena eta gaitasuna edo, behar denean, sailkapena frogatzeaz gainera kontratuaren xedea behar bezala burutzeko behar diren baliabide pertsonal eta material guztiak jar ditzatela (eskaintzan zehaztu behar dira, II. eranskineko ereduaren arabera). | Cuando así lo hagan constar en el apartado J) del Cuadro de Características, la Administración podrá exigir a las empresas candidatas o licitadoras que además de acreditar su solvencia o, en su caso, clasificación, asuman el compromiso de adscribir a la ejecución del contrato los medios personales y materiales suficientes para llevarla a cabo adecuadamente, los cuales deberán detallar en su oferta según el modelo que figura en el Anexo II. |
| Gainera, gutun azal honetan sartu behar da enpresak emandako informazioaren konfidentzialtasunaren adierazpena, behar denean (eredua III. eranskinean). | Así mismo, se incluirá en este sobre, la declaración como confidencial de la información facilitada por la empresa, en su caso, según el modelo que figura en el Anexo III. |
| Aparteko orri batean gutun azalaren barruan dauden dokumentuen zerrenda egin behar da. | En hoja independiente, figurará una relación numerada del contenido del sobre. |
| 6.3.- **A GUTUN AZALA: KONTRATATZEKO GAITASUNA**. Gutun azal honetan lizitatzailearen erantzukizunpeko adierazpena sartu behar da (EREDUA IV. eranskinean), Europar Batasunak onartutako Europako kontratazio dokumentu bakarreko formulazio normalizatuarekin bat datorrena eta esaten duena lizitatzaileak betetzen dituela Arabako Foru Aldundiarekin kontratatzeko legez ezarritako baldintzak, kontratazioko ezaugarrien taulan eta administrazio baldintza partikularren agirian ezartzen direnak, SPKLko 140. artikuluan arautzen den bezala. | 6.3.- **SOBRE A: CAPACIDAD PARA CONTRATAR**. Deberán incluirse en este sobre una Declaración Responsable del/a Licitador/a, según MODELO que se recoge en el Anexo IV, de conformidad con el formulario normalizado del documento europeo único de contratación aprobado en el seno de la Unión Europea, indicando que cumple las condiciones establecidas legalmente para contratar con Tolosaldea Garatzen contenidas en el Cuadro de Características y en el Pliego de Cláusulas Administrativas Particulares de la presente contratación, conforme a lo establecido en el artículo 140 de la LCSP. |
| Enpresak beste enpresa batzuetara jotzen badu kaudimena, gaitasuna eta baliabideak ziurtatzeko, SPKLko 75. artikuluarekin bat etorriz, haietako bakoitzak erantzukizunpeko adierazpena aurkeztu beharko du | En los casos en que la empresa recurra a la solvencia y medios de otras empresas de conformidad con el artículo 75 de la LCSP, cada una de ellas también deberá presentar una Declaración Responsable en la que figure la información pertinente para estos casos con arreglo al MODELO que se |

honelako kasuetarako behar den informazioarekin (EREDUA IV. eranskinean).

Enpresa batzuek ALDI BATERAKO ENPRESA ELKARTEA eratzen badute lizitazioan parte hartzeko, elkarteko kide bakoitzak bere erantzukizunpeko adierazpena aurkeztu behar du (EREDUA IV. eranskinean). Horrez gainera, dokumentu batean aldi baterako elkarteko enpresen izenak eta inguruabarrak adierazi behar dituzte eta bakoitzaren partaidetzaren berri eman behar dute, elkarteko ordezkari edo ahaldun bakarra nor den azaldu behar dute, eta adierazi behar dute konpromisoa hartzen dutela kontratua adjudikatuz gero aldi baterako elkartea formalki eratzeko, SPKLko 69.3 artikuluan ezartzen denarekin bat etorriz.

Agirian ezartzen bada kontratuaren xedea loteetan zatituko dela eta kaudimenaz (ekonomikoa eta finantzetakoa) edo gaitasun teknikoaz eta profesionalaz eskatzen diren baldintzak desberdinak badira lote batetik bestera, erantzukizunpeko adierazpen bat aurkeztu behar da baldintza berak aplikatzen zaizkion lote edo lote talde bakoitzeko.

Lizitatzailearen erantzukizunpeko adierazpenean, Europar Batasunak onartutako Europako kontratazio dokumentu bakarreko formulazio normalizatuarekin bat etorriz, enpresaren edo ABEEren helbide elektronikoa adierazi behar da, jakinarazpenak bidali ahal izateko, SPKLko hamabosgarren xedapenean ezartzen den bezala.

Gainera, gutun azal honetan sartu behar da lizitatzailea enpresa talde bateko kidea delako adierazpena, behar denean (eredua V. eranskinean).

6.4.- Kontratua adjudikatu aurretik zein adjudikatu ondoren zein lanak egiten diren artean Tolosaldea Garatzenek egiaztatu ahal izango du egia denez adierazten dena C gutun azaleko agirietan, enpresa adjudikaziodunak bere kontratatzeko gaitasunaz aurkeztu duen dokumentazioan eta, behar den kasuetan, ezaugarrien taulan burutzapen baldintza bereziak betetzen direla frogatzeko sartzen diren agirietan. Enpresak adierazitako datuak eta inguruabarrak gezurrezkoak izatea kontratua deuseztatzeko arrazoia izan daiteke, kontratistari egotz dakiokeen hutsegitea baita, eta horrek behin betiko bermea galtzea ekar dezake edo, bestela, bermerik jarri ez bada, edo eratu beharrik izan ez bada, bermearen adinako kalte ordaina ordaindu beharra. Gainera, Tolosaldea Garatzeni eragindako kalteak eta galerak ordaindu beharko dira, hain zuzen jarritako bermearen zenbatekoaz gorako kopurua.

**7.- DOKUMENTAZIOAREN KALIFIKAZIOA**

7.1.- KONTRATAZIO MAHAIA. Kontratazio Mahaia eratuko da jasotzen diren eskaintzak aztertzeko. Mahaiko kideak ezaugarrien taulako K) idatz zatian ezartzen dira.

Baldin eta balio judizioaren arabera zenbatzen diren

recoge en el Anexo IV.

En lo que respecta a las empresas que concurran a la licitación agrupadas en UNIÓN TEMPORAL DE EMPRESAS, la aportación de la Declaración Responsable con arreglo al MODELO que se recoge en el Anexo IV se realizará por cada una de las empresas que formen la Unión Temporal, debiendo presentar, asimismo, el documento en el que se indique el nombre y circunstancias de las empresas que constituyan la Unión Temporal y la participación de cada una de ellas, la designación del/a representante o apoderado/a único/a de la unión, así como que asumen el compromiso de constituirse formalmente en Unión Temporal en caso de resultar adjudicatarias del contrato, conforme a lo establecido en el artículo 69.3 de la LCSP.

Cuando el pliego prevea la división en lotes del objeto del contrato, si los requisitos de solvencia económica y financiera o técnica y profesional exigidos variaran de un lote a otro, se aportará una Declaración Responsable por cada lote o grupo de lotes al que se apliquen los mismos requisitos de solvencia

La Declaración Responsable del/a Licitador/a, de conformidad con el formulario normalizado del documento europeo único de contratación aprobado en el seno de la Unión Europea, deberá incluir una dirección de correo electrónico de la empresa o, en su caso, de la UTE, a los efectos de poder cursar en el mismo las oportunas notificaciones, según lo señalado en la Disposición Adicional Decimoquinta de la LCSP.

Así mismo, se incluirá en este sobre, la declaración expresa de formar parte de un grupo empresarial, en su caso, según el modelo que figura en el Anexo V

6.4.- Tolosaldea Garatzen podrá comprobar, tanto antes como después de la adjudicación y durante la ejecución del contrato, la veracidad del contenido de los documentos incluidos en el sobre A, de la documentación aportada por la empresa adjudicataria relativa a su capacidad de contratar así como de los documentos que, en su caso, se consignen en el Cuadro de Características como acreditativos de las condiciones especiales de ejecución, entendiéndose que la falsedad de los datos y circunstancias presentados por la empresa puede ser causa de nulidad del contrato, en su caso, por incumplimiento imputable a la empresa contratista, con pérdida de la garantía definitiva constituida o, en su caso, indemnización por valor de aquélla si no se ha constituido o su importe equivalente si no se exige su constitución, debiendo indemnizar, además, a Tolosaldea Garatzen los daños y perjuicios ocasionados en lo que excedan del importe de la garantía incautada.

**7.- CALIFICACIÓN DE LA DOCUMENTACIÓN**

7.1.- MESA DE CONTRATACIÓN. Al efecto de examinar las proposiciones recibidas se constituirá la Mesa de Contratación que estará integrada del modo que se establece en el apartado K) del Cuadro de Características.

| | |
|---|---|
| irizpideen araberako balorazioaren haztapena handiagoa bada modu automatikoan ebaluatzen diren irizpideen araberako balorazioarena baino, kalifikazio egokia duten langile adituen batzorde baten esku utziko da edo, bestela, erakunde tekniko espezializatu bati agindu ahal izango zaio (batzordea edo erakundea ezaugarrien taulako K) idatz zatian zehaztu behar da). | En el caso de que la valoración de los criterios cuya cuantificación dependa de un juicio de valor tenga atribuida una ponderación mayor que la correspondiente a los criterios evaluables de forma automática, corresponderá a un comité formado por personal experto con cualificación apropiada o podrá encomendarse a un organismo técnico especializado, debidamente identificados en el apartado K) del Cuadro de Características. |
| 7.2.- ESKAINTZAK AZTERTZEA. Aldez aurretik, Kontratazio Mahaiak A gutun azalean zer dagoen aztertuko du, eta garaiz eta behar bezala aurkeztutako erantzukizunpeko adierazpenak egiaztatuko ditu. Adierazpenak egiaztatzeko, mahaiburuak gutun azalak irekitzeko aginduko du. Mahaiak akats materialik antzematen badu aurkeztutako agirietan, enpresa interesdunei jakinaraziko die eta hiru egun balioduneko epealdia emango die akatsak zuzentzeko. | 7.2.- EXAMEN DE LAS PROPOSICIONES. La Mesa de Contratación examinará con carácter previo el contenido de los sobres A y verificará las Declaraciones Responsables presentadas en tiempo y forma. A los efectos de la expresada verificación, el presidente ordenará la apertura de los sobres. Si la Mesa observare defectos materiales en la documentación presentada lo comunicará a las empresas interesadas; y concederá un plazo no superior a tres días hábiles para que la empresa licitadora subsane el error. |
| Aurkeztutako erantzukizunpeko adierazpenak egiaztatu eta, behar denean, aurkitutako akatsak zuzendu edo falta diren datuak bildutakoan Mahaiak lizitaziorako onartutako enpresak zehaztuko ditu, eta berariaz adieraziko du zeintzuk ez dituen onartzen eta ez onartzeko arrazoiak azalduko ditu. | La Mesa de contratación, una vez verificadas las Declaraciones Responsables presentadas y subsanados, en su caso, los defectos u omisiones advertidos, procederá a determinar las empresas admitidas a la licitación, con pronunciamiento expreso sobre los rechazados y sobre las causas de su rechazo. |
| Behar denean, mahaiak B gutun azalak irekiko ditu (baldintza teknikoak eta balio judizioa eginez haztatu behar diren irizpideei dagokien dokumentazioa). Gero, B gutun azaletako dokumentazioak baloratu behar dituen organoari emango zaizkio. | En su caso, la Mesa de contratación procederá a la apertura de los Sobres B (requisitos técnicos y documentación relativa a los criterios cuya ponderación depende de un juicio de valor). Una vez realizada la apertura de los Sobres B se entregará al órgano encargado de su valoración la documentación contenida en ellos. |
| Prozedura bakoitzeko eskaintzak edo eskaera balioetsi baino lehen kontratazio organoaren titularrak interesen gatazken arriskuaren analisi sistematikoa egingo du, urtarrilaren 24ko HFP/55/2023 Aginduan ezartzen den bezala. Horretarako, kontratazio organoko kideei buruzko informazioa eta prozeduran parte hartzen duten pertsona fisikoei eta juridikoei buruzko informazioa aterako du ZAEAren MINERVA tresnatik, eta aztertu egingo du. | Con carácter previo a la valoración de las ofertas o solicitudes de cada procedimiento, el titular del órgano de contratación realizará el análisis sistemático del riesgo de conflicto de interés tal y como se determina en la Orden HFP/55/2023 de 24 de enero. Para ello recabará y contrastará en la herramienta MINERVA de la AEAT información sobre los miembros del órgano de contratación, así como de las personas físicas y jurídicas que participan en el procedimiento: |
| 1.- Eragiketaren erreferentzia-kodea aldez aurretik CoFFEEn (CRO).<br>2.- Kontratazio-organoko kideen eta kide anitzeko asistentzia-organoko kideen izen-abizenen eta IFZren zerrenda.<br>3.- Prozeduran parte hartzen duten pertsona fisikoen izen-abizenak edo IFZ. Pertsona juridikoak badira, sozietatearen izena eta IFZ jasoko dira. Parte-hartzaileak ez badu Espainiako MINERVA IFZrik, ez du azterketa egiteko informaziorik, eta, ondorioz, bandera beltza jasotzearekin lotutako eragiketa egingo da kasuistika horretarako. | 1. Código de referencia de operación previamente en CoFFEE (CRO).<br>2. Listado con el nombre, apellidos y NIF de los miembros del órgano de contratación, así como de los miembros del órgano colegiado de asistencia.<br>3. Listado con el nombre, apellidos o NIF de las personas físicas participantes en el procedimiento. En el caso de que sean personas jurídicas, se incorporará su razón social y NIF. En el caso de que el participante no cuente con un NIF español MINERVA no dispone de información para realizar el análisis, y consecuencia, para esa casuística se llevará a cabo la operativa asociada a la recepción de bandera negra. |
| Datuak gurutzatu ondoren, MINERVAk interes-gatazkako arriskuaren azterketaren emaitza eskainiko dio kontratazio-organoaren titularrari, hurrengo egunean. Azterketa horretatik bandera gorriak eta/edo beltzak detektatu ahal | Una vez realizado el cruce de datos, MINERVA ofrecerá el resultado del análisis de riesgo de conflicto de interés al titular del órgano de contratación, al día siguiente. De dicho |

| | |
|---|---|
| izango dira:<br>• Bandera gorririk antzeman ez bada, prozedurak aurrera jarraituko du.<br>• Bandera gorri bat edo gehiago detektatu badira, eraginpeko erabakitzailearen egoera argitu beharko da. Egoera hori argitzen ez den bitartean, ezingo da prozedurarekin jarraitu. Horretarako, urtarrilaren 24ko HFP/55/2023 Aginduaren 5. artikuluan ezarritako prozedurari jarraitu beharko zaio. Agindu hori PRTR gauzatzen duten prozeduretan interes-gatazkak izateko arriskuaren azterketa sistematikoari buruzkoa da.<br>• Bandera beltz bat edo gehiago detektatu badira, ez da prozedura automatikoki etengo. Kasu horretan, kontratazio-organoak parte-hartzaileei beren benetako titulartasunari buruzko informazioa eskatuko die. Informazio hori bost egun balioduneko epean eman beharko zaio kontratazio-organoari, informazio-eskaera egiten denetik zenbatzen hasita, eta informazio hori ez ematea izango da parte hartzen ari den prozeduratik kanpo uzteko arrazoia. | análisis podrán detectarse o no banderas rojas y/o negras:<br>• En el caso de que no se hayan detectado banderas rojas el procedimiento seguirá su curso.<br>• En el caso de que se hayan detectado una o varias banderas rojas se deberá dilucidar la situación del decisor afectado. En tanto no se aclare tal situación no se podrá continuar con el procedimiento. Para ello se deberá seguir el procedimiento establecido en el artículo 5 de la Orden HFP/55/2023, de 24 de enero, relativa al análisis sistemático del riesgo de conflicto de interés en los procedimientos que ejecutan el PRTR.<br>• En el caso de que se haya detectado una o varias banderas negras no implicará la suspensión automática del procedimiento. En este caso el órgano de contratación solicitará a los participantes la información de su titularidad real. Esta información deberá aportarse al órgano de contratación en el plazo de cinco días hábiles desde que se formule la solicitud de información, constituyendo su falta de entrega, motivo de exclusión del procedimiento en el que esté participando. |
| Ezaugarrien taulako L) idatz zatian ezartzen diren tokian, egunean eta orduan Kontratazio Mahaiak lizitaziorako onartutako enpresen C gutun azalak irekiko ditu egintza publiko batean, hau da, eskaintza ekonomikoa eta formula bidez ebaluatu daitezkeen gainerako irizpideei dagokien dokumentazioa dituzten gutun azalak. Egintza horretan, C gutun azalak ireki aurretik, A gutun azaletako erantzukizunpeko adierazpenen egiaztapenaren ondorioz lizitaziorako zer enpresa onartu diren eta zeintzuk baztertu diren jakinaraziko da eta, adjudikaziorako kontuan hartu behar badira balio judizioaren arabera haztatzen diren balorazio irizpideak, B gutun azaletako dokumentazioetako eskaintzen alderdi teknikoen balorazioa irakurriko da. | En el lugar, fecha y hora señalados en el apartado L) del Cuadro de Características, la Mesa de contratación procederá al acto público de apertura de los Sobres C, que contienen las proposiciones económicas y la documentación relativa al resto de criterios evaluables mediante fórmulas incluidos en el sobre C presentados por las empresas licitadoras admitidas. En él y antes de la apertura de los sobres C, se comunicará las empresas licitadoras admitidas y excluidas a la licitación como consecuencia de la verificación de las Declaraciones Responsables incluidas en los sobres A y se dará lectura a la valoración de los aspectos técnicos de las proposiciones a que se refiere la documentación contenida en los sobres B, cuando en la adjudicación deban tenerse en cuenta criterios de valoración de las ofertas cuya ponderación depende de un juicio de valor. |
| 7.3.- ESKAINTZAK KALIFIKAZIOA. Eskaintzaren bat ez badator bat aztertu eta onartutako dokumentazioarekin, lizitazio oinarria gainditzen bada, ezarritako eredua funtsean aldatzen bada edo zenbatekoan errore nabarmena badago, edo enpresa lizitatzaileak onartzen badu errore edo akatsen bat dagoela eta ondorioz eskaintza ez dela bideragarria, Kontratazio Mahaiak bertan behera utziko du eskaintza ebazpen arrazoitu baten bidez (SPKL, 84. artikulua).<br>Hain zuzen ere, eskaintza lizitaziotik kanpo uztea ekarriko du balio judizioa eginez haztatu behar diren irizpideei dagokien dokumentazioa aparteko gutun azal batean aurkeztu beharra ez betetzeak. | 7.3.- CALIFICACIÓN DE LAS PROPOSICIONES.- Si alguna proposición no guardase concordancia con la documentación examinada y admitida, excediese del tipo de licitación, variara sustancialmente el modelo establecido, comportase error manifiesto en el importe de la proposición, o existiese reconocimiento por parte de la empresa licitadora de que adolece de error o inconsistencia que la hagan inviable, será desechada por la Mesa de contratación en resolución motivada (artículo 84 RGLCAP).<br>En particular, será causa de exclusión de la oferta el incumplimiento de la obligación de presentación en sobre independiente del resto de la proposición de la documentación relativa a los criterios cuya ponderación dependa de un juicio de valor. |

| | |
|---|---|
| 7.4.- ESKAINTZA BAXUEGIAK. Eskaintzak baxuegitzat jotzeko ezaugarrien taulako N) idatz zatiko parametroak aplikatuko dira. Eskaintza horiek direla eta SPKLko 149. artikuluan eta HAKLAOko 85. artikuluan xedatzen dena aplikatuko da.<br><br>Kontratazio Mahaiak uste badu eskaintzaren batean akatsen bat egon daitekeela, aurkeztu duen enpresa lizitatzaileari (edo enpresei) eskatu beharko dio azal dezala zergatik diren hain baxuak eskaintzako prezioak edo kostuak, edo zer gertatzen den eskaintza akastuntzat jotzea eragin duen parametroarekin, arrazoiak xehatuta, eta hori egiteko behar bezain luzea den epealdia emango dio; azalpenarekin batera lizitatzaileak behar diren datuak eta agiriak aurkeztu beharko ditu.<br><br>Kontratazio Mahaiak enpresa lizitatzaileak ezarritako epealdiaren barruan emandako informazioa eta dokumentazioa aztertuko ditu eta enpresa lizitaziorako onartzeko edo ez onartzeko proposamen arrazoitua bidaliko dio kontratazio organoari.<br><br>Baldin eta, enpresa lizitatzailearen justifikazioa eta bidezko txosten teknikoak kontuan hartuta, kontratazio organoak uste badu jasotako informazioak ez duela ondo azaltzen zergatik diren hain baxuak eskaintzako prezioak edo kostuak eta, ondorioz, erabakitzen badu ezarritako balio akastunak direla eta eskaintza ezin dela bete, lizitaziotik kanpo utziko du. Oro har, akastuntzat jotzen diren eskaintzak lizitaziotik kanpo utziko dira oinarrian dauden hipotesiak edo jardunak desegokiak izanez gero irizpide teknikoen, ekonomikoen edo juridikoen arabera.<br><br>7.5.- ESKAINTZAK EBALUATZEA. Kontratazio Mahaiak agiri honetako ezaugarrien taulako M) idatz zatian ezarritako balorazio irizpideen arabera ebaluatuko ditu eskaintzak, haztapen garrantzirik handiena daukanetik hasita; horretarako bidezkotzat jotzen dituen txosten tekniko guztiak eskatu ahal izango ditu. Gero, bidezko proposamena aurkeztuko dio kontratazio organoari. Kontuan hartu beharreko irizpide bakarra prezioa bada, eskaintzarik onena preziorik baxuena ematen duena izango da.<br><br>Balorazio irizpideen aplikazioaren ondoren bi eskaintza edo gehiago berdindurik gertatzen badira balorazio onenarekin, ezaugarrien taulako M) idatz zatiko irizpideak aplikatuko dira (bertan agertzen diren ordenan) berdinketa hausteko.<br><br>Irizpide horiek ezarri ez badira, adjudikazio irizpideak aplikatu ondoren hainbat eskaintza berdindurik gertatzen badira, SPKLko 147.2 artikuluan ezartzen diren irizpide sozialak hartuko dira kontuan kontratua adjudikatzeko, bertan agertzen diren ordenan eta erreferentziatzat eskaintzak aurkezteko epealdiko azken eguna hartuta. | 7.4.- OFERTAS ANORMALMENTE BAJAS.- Serán consideradas ofertas anormalmente bajas aquéllas que se encuentren en los casos identificados de acuerdo con los parámetros que se especifican en el apartado N) del Cuadro de Características. Respecto a ellas se estará a lo dispuesto en los artículos 149 de la LCSP y 85 del RGLCAP.<br><br>Cuando la Mesa de contratación hubiere identificado una o varias ofertas incursas en presunción de anormalidad, deberá requerir a la empresa licitadora o empresas licitadoras que las hubieren presentado dándoles plazo suficiente para que justifiquen y desglosen razonada y detalladamente el bajo nivel de los precios, de costes o cualquier otro parámetro en base al cual se haya definido la anormalidad de la oferta, mediante la presentación de aquella información y documentos que resulten pertinentes a estos efectos.<br><br>La Mesa de contratación evaluará toda la información y documentación proporcionada por la empresa licitadora en plazo y elevará de forma motivada la correspondiente propuesta de aceptación o rechazo al órgano de contratación.<br><br>Si el órgano de contratación, considerando la justificación efectuada por la empresa licitadora y los informes técnicos pertinentes, estimase que la información recabada no explica satisfactoriamente el bajo nivel de los precios o costes propuestos por la empresa licitadora y que, por lo tanto, la oferta no puede ser cumplida como consecuencia de la inclusión de valores anormales, la excluirá de la licitación. En general se rechazarán las ofertas incursas en presunción de anormalidad si están basadas en hipótesis o prácticas inadecuadas desde una perspectiva técnica, económica o jurídica.<br><br>7.5.- EVALUACIÓN DE LAS PROPOSICIONES.- La Mesa de contratación evaluará las proposiciones mediante los criterios de valoración que se recogen por orden decreciente de importancia y ponderación en el apartado M) del Cuadro de Características del presente Pliego, pudiendo solicitar para ello cuantos informes técnicos estime pertinentes, y formulará la propuesta que estime pertinente al órgano de contratación. Cuando el único criterio a considerar sea el precio, se entenderá que la mejor oferta es la que incorpora el precio más bajo.<br><br>En el caso de que dos o más proposiciones se encuentren igualadas como las más ventajosas desde el punto de vista de los criterios de valoración de las ofertas, resultará adjudicataria aquélla que resulte de la aplicación de los criterios de desempate señalados en el apartado M) del Cuadro de Características en el orden allí señalado.<br><br>En defecto de ellos, el empate entre varias proposiciones tras la aplicación de los criterios de adjudicación del contrato se resolverá mediante la aplicación por orden de los criterios sociales recogidos en el artículo 147.2 de la LCSP, referidos al momento de finalizar el plazo de presentación de ofertas. |

| III. ADJUDIKAZIOA | III. ADJUDICACIÓN |
|---|---|
| **8.- ESKAINTZEN SAILKAPENA ETA ADJUDIKAZIODUNA IZATEKO PROPOSATZEN DEN ENPRESA LIZITATZAILEAK AURKEZTU BEHARREKO DOKUMENTAZIOA.** | **8.- CLASIFICACIÓN DE LAS OFERTAS Y DOCUMENTACIÓN A PRESENTAR POR LA EMPRESA LICITADORA PROPUESTA COMO ADJUDICATARIA.** |
| 8.1.- Kontratazio Mahaiak, SPKLko 150. artikuluan xedatzen denarekin bat etorriz, kontratazio organikoari bidaliko dio neurriz kanpokoak edo akastunak izateagatik lizitaziotik kanpo utzi ez diren eskaintzen zerrenda, goitik beherako ordenan sailkatuta, eta horrekin batera adjudikazio proposamena eta akta ere bai. | 8.1.- La Mesa de Contratación, de acuerdo con lo dispuesto en el artículo 150 de la LCSP elevará al órgano de contratación, clasificadas por orden decreciente, las proposiciones presentadas y que no hayan sido excluidas o declaradas desproporcionadas o anormales, junto con el acta y la propuesta de adjudicación. |
| 8.2.- Kontratua adjudikatzeko proposatzen den enpresa lizitatzaileak kontratua adjudikatu aurretik kontratazio organoari frogatu beharko dio badauzkala gaitasuna eta kaudimena frogatzen dituzten agiriak, administrazio baldintza partikularren agiriko 8.3 baldintzan eskatzen direnak, eta agiriok baliozkoak direla ere bai. | 8.2.- La empresa licitadora en cuyo favor recaiga la propuesta de adjudicación, deberá acreditar ante el órgano de contratación, previamente a la adjudicación del contrato, la posesión y validez de los documentos acreditativos de su capacidad y solvencia exigidos en la cláusula 8.3 del Pliego de Cláusulas Administrativas Particulares. |
| Eskaintzak aurkezteko epealdia amaitzen denean ebatziko da Tolosaldea Garatzenekin kontratatzeko eskatzen diren gaitasun eta kaudimen baldintzak betetzen direnez eta kontratatzeko debekurik dagoenez; hala bada, egoerak bere horretan jarraitu beharko du kontratua formalizatzen denean, hau da, baldintza horiek bete beharko dira eta ezin da egon kontratatzeko debekurik. | El momento decisivo para apreciar la concurrencia de los requisitos de capacidad y solvencia exigidos para contratar con Tolosaldea Garatzen y la ausencia de prohibiciones de contratar será el de finalización del plazo de presentaciones de ofertas y deberán subsistir en el momento de formalización del contrato. |
| Aurrekoa betetzeko, zerbitzu egokiak eskaintzarik onena egin duen enpresa lizitatzaileari eskatuko dio errekerimendua jaso eta hurrengo egunetik hamar egun baliodun pasatu baino lehen (edo bost, izapideak presaz eginez gero) aurkez ditzala honako hauek frogatzen dituzten agiriak, bai enpresa lizitatzaileari dagozkionak, bai gaitasuna eta kaudimena ziurtatzeko laguntza bila jotzen den enpresei dagozkienak: 140. artikuluko 1. idatz zatiko a) – c) bitarteko letretan aipatzen diren inguruabarrak; zerga betebeharrak eta Gizarte Segurantzarekikoak egunean dituela (edo baimena eman kontratazio organoari frogagiriok zuzenean eskuratzeko); badauzkala ezaugarrien taulako J) idatz zatian ezartzen denaren arabera kontratua burutzeko behar diren baliabideak; agiri honetako 9. baldintzaren arabera behar den behin betiko bermea eratu duela. | Para dar cumplimiento a lo anterior, el correspondiente Servicio requerirá a la empresa licitadora que haya presentado la mejor oferta para que, dentro del plazo de diez días hábiles (cinco en el caso de tramitación urgente), a contar desde el siguiente a aquél en que hubiera recibido el requerimiento, presente la documentación justificativa de las circunstancias a las que se refieren las letras a) a c) del apartado 1 del artículo 140 y la documentación justificativa de hallarse al corriente en el cumplimiento de sus obligaciones tributarias y con la Seguridad Social (o autorice al órgano de contratación para obtener de forma directa la acreditación de ello), tanto de la empresa licitadora como de aquellas otras empresas a cuyas capacidades se recurra, de disponer efectivamente de los medios que se hubiese comprometido a dedicar o adscribir a la ejecución del contrato conforme a lo exigido en el apartado J) del Cuadro de Características, y de haber constituido la garantía definitiva que sea procedente en los términos señalados en la cláusula 9 del presente Pliego. |
| 8.3.- 140. artikuluko 1. idatz zatiko a) – c) bitarteko letretan aipatzen diren inguruabarren frogagiriak direla eta, bai enpresa lizitatzaileak bai hark gaitasunak ziurtatzeko erabiltzen dituen enpresek honako agiri hauek aurkeztu beharko dituzte: | 8.3.- En relación con la documentación justificativa de las circunstancias a las que se refieren las letras a) a c) del apartado 1 del artículo 140 tanto de la empresa licitadora como de aquellas otras empresas a cuyas capacidades se recurra, deberá presentar los siguientes documentos: |
| a) Eskaera norberaren izenean edo ahaldun gisa aurkezten duenaren Nortasun Agiri Nazionala. | a) Documento Nacional de Identidad de la persona que presente la solicitud en nombre propio o como apoderado. |
| b) Pertsona juridiko diren enpresen jarduteko gaitasuna Merkataritza Erregistroan aurkeztutako eratze edo aldatze eskrituraren bidez egiaztatuko da, baldin eta aplikagarri dituen merkataritza legeek hala eskatzen badute. Beharrezkoa izan ezean, eraketa eskritura edo agiriaren bidez, estatutuen bidez edo sorrerako egintzaren berri ematen duen agiriaren bidez egiaztatuko litzateke jarduteko | b) La capacidad de obrar de las empresas que fueren personas jurídicas que se acreditará mediante escritura de constitución y de modificación, en su caso, inscrita en el Registro Mercantil, cuando este requisito fuera exigible conforme a la legislación mercantil que le sea aplicable. Si no lo fuere, la acreditación de la capacidad de |

| | |
|---|---|
| gaitasuna; agiri horretan jarduerak zein arau bete behar dituen egongo da zehaztuta eta, gainera, kasuan kasuko erregistro ofizialekoak izan beharko dute. | obrar se realizará mediante la escritura o documento de constitución, estatutos o acto fundacional, en el que constaren las normas por las que se regula su actividad, inscritos, en su caso, en el correspondiente Registro oficial. |
| c) Besteren izenean ari direnen ahalordeen askiespenak. Enpresa lizitatzailea pertsona juridikoa bada, ahalordea Merkataritza Erregistroan inskribatuta egon behar da. Ahalordea egintza jakin baterako eman bada, ez dago Merkataritzako Erregistroan inskribatuta egon beharrik, Merkataritzako Erregistroaren Araudiko 94.5 artikuluan xedatzen denarekin bat etorriz. | c) Poder bastante al efecto a favor de las personas que comparezcan o firmen proposiciones en nombre de otra. Si la empresa licitadora fuera persona jurídica, este poder deberá figurar inscrito en el Registro Mercantil. Si se trata de un poder para acto concreto no es necesaria la inscripción en el Registro Mercantil, de acuerdo con el artículo 94.1.5 del Reglamento del Registro Mercantil. |
| d) Finantza eta ekonomia kaudimenaren eta gaitasun teknikoaren edo lanbide gaitasunaren frogagiriak eta, behar denean, enpresa edo lanbide gaikuntzaren frogagiriak (ezaugarrien taulako F) idatz zatian azaltzen dira), Legeko 87. eta 90. artikuluetan ezartzen denaren arabera eta gutxieneko sailkapen eta kategoria talde edo azpitaldea kontuan hartuz, baldin eta kontratuaren xedea indarreko sailkapen talde edo azpitaldeetako batean badago (horretarako kontratuaren CPV kodea hartu behar da aintzat). | d) Los que justifiquen los requisitos de solvencia económica y financiera y técnica o profesional y, en su caso, habilitación empresarial o profesional, y que se señalan en el apartado F) del Cuadro de Características, tanto en los términos establecidos en los artículos 87 y 90 de la Ley como en términos de grupo o subgrupo de clasificación y de categoría mínima exigible, siempre que el objeto del contrato esté incluido en el ámbito de clasificación de alguno de los grupos o subgrupos de clasificación vigentes, atendiendo para ello al código CPV del contrato. |
| Lizitatzaileen eta enpresa sailkatuen erregistro ofizial batean inskribatuta dauden enpresa lizitatzaileek ez dute edukiko zertan aurkeztu b), c) eta d) idatz zatietan aipatzen diren agiriak. Salbuespen honek ziurtagiriaren bidez froga daitezkeen kaudimen eta gaitasunari buruzko frogagiriak soilik hartzen ditu. | Aquellas empresas licitadoras que se encuentren inscritas en un Registro Oficial de Licitadores y Empresas Clasificadas, estarán eximidas de presentar la documentación señalada en los apartados b), c) y d). Esta exención se entiende únicamente respecto a aquellos documentos acreditativos de las circunstancias de capacidad y solvencia cuya acreditación pueda efectuarse mediante el propio certificado. |
| Gaitasuna eta kaudimena kontratua formalizatzen denean eduki behar dira, eta orduan gertatu behar da kontratatzeko debekurik ez egotea ere, eta egoerak bere horretan jarraitu behar du kontratua burutzen denean. | Las circunstancias relativas a la capacidad, solvencia y ausencia de prohibiciones de contratar deberán concurrir en la fecha final de presentación de ofertas y subsistir en el momento de perfección del contrato. |
| Aldi baterako elkartea eratuta lehiatu nahi duten enpresek banaka aurkeztu behar dute aurreko idatz zatietan eskatzen den dokumentazioa. | Las empresas que deseen concurrir integradas en una unión temporal presentarán individualmente la documentación exigida en los apartados precedentes. |
| Jatorrizko agiriak edo kopia kautoak aurkeztu behar dira, indarreko legeriarekin bat etorriz. | Los documentos deberán presentarse originales o mediante copias de los mismos que tengan carácter de auténticas, conforme a la legislación vigente. |
| SPKLko 65 - 76 bitarteko artikuluetan eta 95. artikuluan ezartzen denaren ondorioetarako, zerbitzuak eta Kontratazio Mahaiak aurkeztutako ziurtagirien eta agirien inguruko argibideak eskatu ahal izango dizkie enpresei, edo beste batzuk aurkezteko; hala eginez gero, enpresek bost egun balioduneko epealdia edukiko dute eskaerari erantzuteko. | A los efectos establecidos en los artículos 65 a 76 y 95 de la LCSP, el correspondiente Servicio y la Mesa de contratación podrán recabar de la empresa aclaraciones sobre los certificados y documentos presentados o requerirle para la presentación de otros complementarios, lo que deberá cumplimentar en el plazo de cinco días hábiles desde el correspondiente requerimiento. |
| Atzerriko enpresek VI. eranskinean xedatzen dena bete behar dute. | En el caso de empresas extranjeras, se estará a lo dispuesto en el Anexo VI. |
| 8.4.- Zerga betebeharrak eta Gizarte Segurantzarekikoak betetzen direla frogatzeko honako agiri hauek aurkeztu beharko dira:<br>- Lizitatzailearen zerga egoitza dagoen lurraldeko zerga administrazioak emandako ziurtagiria eta | 8.4.- La acreditación del cumplimiento de las obligaciones tributarias y con la Seguridad Social se realizará mediante la aportación de los siguientes documentos:<br>- Certificación expedida por la Administración Tributaria en que la empresa licitadora tenga su domicilio fiscal, así como por las |

zergapeko jarduerak egin dituen lurraldeetako zerga administrazioek emandakoak, lizitatzaileak bere zerga betebeharrak egunean dituela frogatzen dutenak.

Lizitatzailea merkataritzakoa ez den sozietatea bada, edo nortasun juridikorik gabeko entitatea, ziurtagiriak sozietatearen, entitatearen edo establezimenduaren titularrari buruzkoak izan behar dira.

Arabako Foru Ogasunarekiko betebeharren ziurtagiria Administrazioak eskatuko du ofizioz.

- Jarduera ekonomikoen gaineko zergaren azken ordainagiria edo, jarduerari aribideko ekitaldian ekin bazaio, zerga horren matrikularen alta, kontratuaren xedeari dagokion epigrafean. Gainera, zerga horretan baja eman ez zaiolako erantzukizunpeko adierazpena ere aurkeztu behar da (eredua VII. eranskinean).
- Gizarte Segurantzako Institutu Nazionalaren ziurtagiria, lizitatzaileak haren kuoten ordainketak egunean dauzkala frogatzen duena.

Lizitatzaileen eta enpresa sailkatuen erregistro ofizial batean inskribatuta daudela frogatzen duen indarreko ziurtagiria dutela frogatzen dutenek ez dute edukiko zertan aurkeztu ziurtagiri hauek hura indarrean dagoen artean, baldin eta bertan azaltzen diren inguruabarrak aldatzen ez badira; kontratua formalizatzen duen agirian enpresak berariaz adierazi beharko du indarreko ziurtagiria daukala eta bertan azaltzen diren inguruabarrak ez direla aldatu. Nolanahi ere, jarduera ekonomikoen gaineko zergaren matrikulan baja eman ez zaiola dioen erantzukizunpeko adierazpena aurkeztu beharko du.

8.5.- Aurreko 8.2 puntuan azaltzen dena ez bada betetzen ezarritako epealdiaren barruan, enpresa lizitatzaileak eskaintza bertan behera utzi duela pentsatuko da eta lizitazioaren oinarrizko aurrekontuaren ehuneko 3a eskatuko zaio (BEZ gabe) zehapen kontzeptuan; gero dokumentazio bera eskatuko zaio eskaintzen sailkapeneko hurrengo enpresa lizitatzaileari.

**9.- BEHIN BETIKO BERMEA**

9.1.- Eskaintzarik onena aurkezten duen enpresa lizitatzaileak bermea jarri beharko du kontratazio organoaren esku: eskaintzako azken prezioaren ehuneko 5, gehienez, balio erantsiaren gaineko zerga zenbatu gabe (ezaugarrien taulako O idatz zatia).

Kontratuaren zenbatekoa unitateko prezioen bitartez ezartzen bada, eratu beharreko bermearen zenbatekoa lizitazioaren gehieneko aurrekontuaren arabera finkatuko da, balio erantsiaren gaineko zerga zenbatu gabe.

Kontratuko prezioak behin-behinekoak izanez gero, ehunekoa finkatutako gehieneko prezioari aplikatuko zaio,

Administraciones Tributarias en que se hayan realizado o se realicen actividades sujetas a tributación, acreditativas de que aquella se encuentra al corriente en el cumplimiento de sus obligaciones tributarias.

Tratándose de sociedades no mercantiles o entidades carentes de personalidad jurídica, la(s) certificación(es) se referirán al titular o titulares de la sociedad, entidad o establecimiento.

- Último recibo del Impuesto de Actividades Económicas, o el alta en la matrícula de dicho Impuesto en el caso de inicio de la actividad durante el presente ejercicio, en el epígrafe correspondiente al objeto del contrato. Asimismo, se completará con una declaración responsable de no haberse dado de baja en la matrícula del citado Impuesto, según el modelo que figura en el Anexo VII
- Certificado del Instituto Nacional de la Seguridad Social en el que se acredite hallarse al corriente en el pago de las cuotas de dicha entidad.

Quienes acrediten o hayan acreditado disponer de certificación vigente de inscripción en un Registro Oficial de Licitadores y Empresas Clasificadas, están exentos de presentar estas certificaciones en tanto se mantenga dicha vigencia y las circunstancias reflejadas en el correspondiente certificado no hayan experimentado variación, extremos que la empresa deberá manifestar expresamente en el documento en que se formalice el contrato, con la excepción de la declaración responsable de no haberse dado de baja en la matrícula del Impuesto de Actividades Económicas.

8.5.- De no cumplirse el requerimiento a que hace referencia el punto 8.2 anterior en el plazo señalado, se entenderá que la empresa licitadora ha retirado su oferta, procediéndose a exigirle el importe del 3 por ciento del presupuesto base de licitación, IVA excluido, en concepto de penalidad y a recabar la misma documentación a la empresa licitadora siguiente, por el orden en que hayan clasificado las ofertas.

**9.- GARANTÍA DEFINITIVA**

9.1.- La empresa licitadora que hubiera presentado la mejor oferta deberá constituir a disposición del órgano de contratación una garantía máxima de un 5 por 100 del precio final ofertado, excluido el Impuesto sobre el Valor Añadido, según se recoge en el apartado O) del Cuadro de Características.

Cuando la cuantía del contrato se determine en función de precios unitarios, el importe de la garantía a constituir se fijará atendiendo al presupuesto máximo de la licitación, excluido el Impuesto sobre el Valor Añadido.

En el caso de contratos con precios provisionales, el porcentaje se calculará con referencia al precio máximo

| | |
|---|---|
| balio erantsiaren gaineko zerga zenbatu gabe. | fijado, excluido el Impuesto sobre el Valor Añadido. |
| SPKLko 107.2 artikuluan arautzen diren kasu berezietan berme osagarria eskatu ahal izango da, ezaugarrien taulako O) idatz zatian ezartzen bada. | En los casos especiales previstos en el artículo 107.2 de la LCSP, si así consta en el apartado O) del Cuadro de Características, se podrá exigir garantía complementaria. |
| 9.2.- Tolosaldea Garatzenek enpresa lizitatzaileari eskatuko dio errekerimendua jaso eta hurrengo egunetik hamar egun baliodun pasatu baino lehen (edo bost, izapideak presaz eginez gero) aurkez dezala bidezko behin betiko bermea eratu duela frogatzen duen dokumentazioa. | 9.2.- Tolosaldea Garatzen requerirá a la citada empresa licitadora para que, dentro del plazo de diez días hábiles (cinco en el caso de tramitación urgente) a contar desde el siguiente a aquél en que hubiera recibido el requerimiento, presente la documentación acreditativa de haber constituido la garantía definitiva que sea procedente. |
| Betekizun hau betetzen ez bada enpresari egotz dakiokeen arrazoi bategatik, Tolosaldea Garatzenk ez dio adjudikatuko kontratua eta SPKLko 150.2 artikuluko azken paragrafoan xedatzen dena aplikatuko da. | De no cumplirse este requisito por causas a ella imputables, la Tolosaldea Garatzen no efectuará la adjudicación a su favor, siendo de aplicación lo dispuesto en el último párrafo del artículo 150.2 de la LCSP. |
| 9.3.- Bermea eratzeko SPKLko 108. artikuluan ezartzen diren bideak erabil daitezke, HAKLAOko 55. artikuluan eta hurrengoetan ezartzen diren baldintzak beteta. Onartutako ereduak VIII., IX., X. eta XI. eranskinetan daude. | 9.3.- La garantía podrá constituirse en cualquiera de las formas establecidas en el artículo 108 de la LCSP, con los requisitos establecidos en el artículo 55 y siguientes del RGLCAP y de acuerdo con los modelos aprobados en los Anexos VIII, IX, X u XI.. |
| Jardueren diseinua eta garapena DNSHren hasierara egokitzeko, gida orientagarri hau erabili ahal izango da:<br>https://www.miteco.gob.es/eu/ministerioa/berreskuratze-eraldaketa-erresilientzia/trantsizio-berdea/guiadnshmitecov20_tcm30-528436.pdf<br>Gainera, informazio-teknologietako ekipoak eskuratuz gero, ziurtatu beharko dute ekipamendu horiek betetzen dituztela otsailaren 18ko 187/2011 Errege Dekretuan ezarritako energiarekin lotutako betekizunak (187/2011 Errege Dekretua, otsailaren 18koa, zerbitzarietarako eta datu-biltegiratzerako energiarekin lotutako produktuei aplikagarriak zaizkien diseinu ekologikoko betekizunak ezartzeari buruzkoa), edo ordenagailuen edo pantaila elektronikoen ordenagailuak eta zerbitzariak. Erosketa horietan, energetikoki eraginkorrak diren eta Europako Batzordearen IKTetarako Jokabide Kodea erabat errespetatzen duten ekipoen erosketa ziurtatzeko neurriak aktibatuko dira, eta ezarritako tresna elektriko eta elektronikoen iraunkortasuna, konponketarako, eguneratzeko eta berrerabiltzeko aukera handitzeko neurriak hartuko dira. | Para adecuar el diseño y el desarrollo de las actuaciones al principio DNSH, se podrá utilizar la siguiente guía orientativa:<br>https://www.miteco.gob.es/es/ministerio/recuperacion-transformacion-resiliencia/transicion-verde/guiadnshmitecov20_tcm30-528436.pdf<br>Además, en caso de adquirir equipos de tecnologías de información deberán asegurarse de que estos cumplan con los requisitos relacionados con la energía establecidos de acuerdo con lo dispuesto en el Real Decreto 187/2011, de 18 de febrero, relativo al establecimiento de requisitos de diseño ecológico aplicables a los productos relacionados con la energía para servidores y almacenamiento de datos, o computadoras y servidores de computadoras o pantallas electrónicas. En estas adquisiciones se activarán medidas para asegurar la compra de aquellos equipos energéticamente eficientes, que sean absolutamente respetuosos con el Código de Conducta para las TIC de la Comisión Europea, y se tomarán medidas para que aumente la durabilidad, la posibilidad de reparación, de actualización y de reutilización de los productos, de los aparatos eléctricos y electrónicos implantados.<br>13.10.3.- La empresa contratista adjudicataria y las |

13.10.3.- Enpresa kontratista adjudikaziodunak eta kontratua gauzatzen harekin elkarlanean aritu behar duten enpresa azpikontratistek bete beharko dituzte HFP/1030/2021 Aginduaren 8.2. artikuluan ezarritako informazio eginbeharrak, eta izenpetu beharko dituzte interes gatazkarik ezaren aitorpena, datuak laga eta tratatzeko aitorpena Suspertze, Eraldatze eta Erresilientzia Planeko (SEEP) jarduketen exekuzioa dela-eta, eta konpromiso aitorpena Suspertze, Eraldatze eta Erresilientzia Planeko (SEEP) jarduketen exekuzioa dela-eta.

2. artikuluan aurreikusitako informazio-betebeharrak betetzeari dagokionez, Ministerio-aginduaren 8.2 artikuluaren arabera, betebehar horiek honako hauei buruzkoak dira:

- Kontratistaren edo azpikontratisten IFZ.

- Izena edo sozietatearen izena.

- Kontratistaren eta, hala badagokio, azpikontratisten helbide fiskala.

- Funtsen azken onuradunaren benetako titularrari buruzko informazioa, HFP/1031/2021 Aginduaren 10. artikuluan aurreikusitako moduan. «Benetako titulartzat» hartzen da kontratistaren eta azpikontratistaren azken jabetza edo kontrola duen pertsona fisikoa edo pertsona fisikoak.

Beraz, halakorik balego, obraren zuzendariak azpikontratistaren datuak eskatu beharko dizkio kontratistari.

Gainera, kontratistak inplikatutako administrazio publikoen arteko datu-lagapena onartzen du, aplikatzekoa den Europako araudian aurreikusitakoa betetzeko, eta Datu Pertsonalak Babesteari eta Eskubide Digitalak Bermatzeari buruzko abenduaren 5eko 3/2018 Lege Organikoarekin bat etorriz.

Azkenik, kontratistak erantzukizunpeko adierazpena sinatuko du, PRTRn ezarritako zeharkako printzipioak betetzeari buruzkoa eta kudeaketa-eremuari eragin diezaioketenak betetzeari buruzkoa.

13.10.4.- Enpresa kontratista adjudikaziodunak eta kontratua gauzatzen harekin elkarlanean aritu behar duten enpresa azpikontratistek behartuta egongo dira funtsen azken hartzaileei buruzko informazioa ematera HFP/1031/2021 Aginduaren 10. artikuluan ezarritako moduan.

13.10.5.- Suspertze, Eraldatze eta Erresilientzia Plana kudeatzeko sistema eratzen duen irailaren 29ko HFP/1030/2021 Aginduaren 9. artikuluan ezarritako betebeharra betez, kontratua Suspertze, Eraldatze eta Erresilientzia Planaren esparruan gauzatzearekin zerikusia duten komunikazio-jarduketa guztietan, kontratistek eta azpikontratistek modu nabarmen eta ikusgarrian erakutsi beharko dute Europar Batasunaren enblema; halaber, jasotako finantzaketaren adierazpena ere erantsi beharko dute honako erreferentzia honekin: «Suspertze, Eraldatze eta Erresilientzia Plana — Europar Batasunak finantzatua —

empresas subcontratistas que vayan a colaborar con él en la ejecución del contrato cumplirán las obligaciones de información previstas en el artículo 8.2. de la Orden HFP/1030/2021, y suscribirán las declaraciones de ausencia de conflicto de intereses, de cesión y tratamiento de datos en relación con la ejecución de actuaciones del plan de recuperación, transformación y resiliencia (PRTR) y de compromiso en relación con la ejecución de actuaciones del plan de recuperación, transformación y resiliencia (PRTR).

En lo relativo al cumplimiento de las obligaciones de información previstas en el art. 8.2 de la orden ministerial, señalar que dichas obligaciones se refieren a:

- NIF del contratista o subcontratistas.
- Nombre o razón social.
- Domicilio fiscal del contratista y, en su caso, de los subcontratistas.
- Información relativa al titular real del beneficiario final de los fondos en la forma prevista en el artículo 10 de la Orden HFP/1031/2021. Se entiende como «titular real»: la persona o personas físicas que tengan la propiedad o el control en último término del contratista y subcontratista.

Por lo tanto, si lo hubiera, el director de la obra tendrá que solicitar al contratista estos datos del subcontratista.

Además, la contratista acepta la cesión de datos entre las Administraciones Públicas implicadas para dar cumplimiento a lo previsto en la normativa europea que es de aplicación y de conformidad con la Ley Orgánica 3/2018, de 5 de diciembre, de Protección de Datos Personales y garantía de los derechos digitales.

Por último, la contratista firmará la Declaración responsable relativa al cumplimiento de los principios transversales establecidos en el PRTR y que pudieran afectar al ámbito de gestión.

13.10.4.- La empresa contratista adjudicataria y las empresas subcontratistas que vayan a colaborar con él en la ejecución del contrato quedarán obligadas a aportar la información sobre perceptores finales de fondos en la forma prevista en el artículo 10 de la Orden HFP/1031/2021.

13.10.5.- En cumplimiento de la obligación establecida por el artículo 9 de la Orden HFP/1030/2021, de 29 de septiembre, por la que se configura el sistema de gestión del Plan de Recuperación, Transformación y Resiliencia, en todas las actuaciones de comunicación relacionadas con la ejecución del contrato en el marco del Plan de Recuperación, Transformación y Resiliencia, los contratistas y subcontratistas deberán exhibir de forma destacada y visible el emblema de la Unión Europea, en la que se incluirá, además, una declaración de la financiación recibida con la siguiente referencia: “Plan de Recuperación, Transformación y Resiliencia – Financiado por la Unión

| | |
|---|---|
| NextGenerationEU».<br><br>Europar Batasunaren enblemak desberdin eta bereizita egon beharko du, eta ezingo da aldatu bestelako ikus-marka, marka edo testuak gehituz.<br><br>Gauzatutako jarduerei buruzko informazio- eta komunikazio-neurri horiek informazio-karteletan, plaketan, argitalpen inprimatuetan eta elektronikoetan, ikus-entzunezko materialean, webguneetan, prentsako iragarki eta txertaketetan, ziurtagirietan eta abarretan sartuko dira. Informazio-kartel eta plaka guztiak edonork ondo ikusteko moduko leku batean jarri beharko dira.<br><br>13.10.6.- Kontratu hau gauzatzean, enpresa kontratista adjudikazioduna Europako Batzordearen, Iruzurraren aurkako Bulegoaren, Europako Kontu Epaitegiaren eta Europako Fiskaltzaren kontrolei loturik egongo da, eta haiek kontratuaren inguruko edozein informazio lortzeko eskubidea izango dute.<br><br>13.10.7.- Artikulu horretan ezarritako betebeharrari jarraikiz, Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2018ko uztailaren 18ko 2018/1046 (EB, Euratom) Erregelamenduaren 132 artikuluaren arabera, kontratistek eta azpikontratistek erregistro bat izango dute, eta finantzaketari buruzko egiaztagiriak, datu estatistikoak eta gainerako agiriak gordeko dituzte bertan, bai eta formatu elektronikoko erregistroak eta dokumentuak ere, saldoa –edo, ordainketa horren ezean, eragiketa– ordaindu eta bost urteko epean. Aldi hori hiru urtekoa izango da finantzaketa 60 000 eurokoa edo txikiagoa bada.<br><br>Auditoriei, errekurtsoei, auziei, konpromiso juridikoei edo Iruzurraren aurkako Borrokarako Bulegoaren ikerketei buruzko erreklamazioen izapidetzeari buruzko erregistroak eta dokumentuak, bestalde, auditoria, errekurtso, auzi, erreklamazio-izapidetze edo ikerketa horiek amaitu arte gordeko dira. Iruzurraren aurkako Borrokarako Bulegoak egindako ikerketei buruzko erregistro eta dokumentuen kasuan, erregistroak eta dokumentuak gordetzeko betebeharra ikerketa horiek hartzaileari jakinarazi ondoren aplikatuko da.<br><br>Erregistroak eta dokumentuak gordetzeko hiru aukera daude: jatorrizkoak; jatorrizkoen kopia konpultsatuak; edo orokorrean onartutako datu-euskarriak, hala nola jatorrizko dokumentuen bertsio elektronikoak edo bertsio elektronikoan soilik existitzen diren dokumentuak. Bertsio elektronikoak existitzen direnean, ez dira beharrezkoak izango originalak, baldin eta dokumentu horiek legezko baldintza aplikagarriak betetzen badituzte, auditoria-ondorioetarako jatorrizkoen baliokide eta fidagarritzat jo ahal izateko.<br><br>13.11.- KONTRATUA LAGATZEA ETA AZPIKONTRATATZEA. Kontratuaren lagapenerako SPKLko 214. artikuluan ezartzen dena aplikatuko da. Kontratuaren adjudikazioa daukan enpresak haren zati bat hirugarren batzuei azpikontratatu | Europea - NextGenerationEU”.<br><br>El emblema de la Unión Europea deberá permanecer distinto y separado y no podrá modificarse añadiendo otras marcas visuales, marcas o texto.<br><br>Estas medidas de información y comunicación de las actuaciones desarrolladas se incluirán en carteles informativos, placas, publicaciones impresas y electrónicas, material audiovisual, páginas web, anuncios e inserciones en prensa, certificados, etc. Todos los carteles informativos y placas deberán colocarse en un lugar bien visible y de acceso al público.<br><br>13.10.6.- En la ejecución de este contrato, la empresa contratista adjudicataria quedará sujeta a los controles de la Comisión Europea, la Oficina de Lucha Antifraude, el Tribunal de Cuentas Europeo y la Fiscalía Europea, quienes tendrán derecho al acceso a cualquier información sobre el contrato.<br><br>13.10.7.- En cumplimiento de la obligación establecida por el art. 132 del Reglamento (UE, Euratom) 2018/1046, del Parlamento Europeo y del Consejo, de 18 de julio de 2018, los contratistas y subcontratistas mantendrán un registro y conservarán los documentos justificativos, los datos estadísticos y demás documentación concerniente a la financiación, así como los registros y documentos en formato electrónico, durante un período de cinco años a partir del pago del saldo o, a falta de dicho pago, de la operación. Este período será de tres años si la financiación es de un importe inferior o igual a 60.000 EUR.<br><br>Los registros y documentos relativos a auditorías, recursos, litigios, la tramitación de reclamaciones relativas a compromisos jurídicos o relativos a investigaciones de la OLAF se conservarán hasta que dichas auditorías, recursos, litigios, tramitación de reclamaciones o investigaciones hayan concluido. En el caso de los registros y documentos relativos a investigaciones de la OLAF, la obligación de conservar los registros y documentos se aplicará una vez que dichas investigaciones hayan sido notificadas al perceptor.<br><br>Los registros y documentos se conservarán, bien en forma de originales, bien en forma de copias compulsadas de originales, bien en soportes de datos comúnmente aceptados, entre ellos versiones electrónicas de documentos originales o documentos existentes únicamente en versión electrónica. Cuando existan versiones electrónicas, no serán necesarios originales si dichos documentos cumplen los requisitos legales aplicables para que puedan ser considerados equivalentes a originales y fiables a efectos de auditoría.<br><br>13.11.- CESIÓN DEL CONTRATO Y SUBCONTRATACIÓN. En materia de cesión del contrato se estará a lo previsto en el artículo 214 de la LCSP. En cuanto a la contratación por la empresa adjudicataria de la realización parcial del contrato con terceros estará sujeta a los requisitos establecidos en el |

| | |
|---|---|
| nahi izanez gero, SPKLko 215. artikuluan ezartzen dena bete beharko du, eta enpresa azpikontratisten eta hornitzaileen ordainketak lege bereko 216. artikuluan xedatzen denarekin bat etorriz egin behar ditu.<br><br>Azpikontratazioaren gehieneko ehunekoa ezaugarrien taulako Y) idatz zatian zehaztuta egongo da; bertan ezarriz gero, enpresa lizitatzaileek eskaintzan honako datu hauek eman beharko dituzte: zenbat azpikontratatzeko asmoa duten, azpikontratazioaren zenbatekoa, eta lanak gauzatzeko aginduko zaien enpresa azpikontratisten izenak edo profilak, gaitasun profesional edo teknikoko baldintzen arabera zehaztuta.<br><br>Edonola ere, kontratua adjudikatu ondoren, eta gehienez ere kontratua egiten hasten denerako, enpresa kontratistak idatziz jakinarazi beharko dio kontratazio organoari azpikontratuak egiteko asmoa duela, adierazi beharko du zenbat nahi duen azpikontratatu, zer enpresa azpikontratatuko duen, nor den enpresa azpikontratistaren legezko ordezkaria (edo ordezkariak), eta harremanetarako datuak eman beharko ditu. Horrez gain, justifikatu egin beharko du enpresak behar besteko gaitasuna duela lanak egiteko, elementu tekniko eta giza baliabideei eta esperientziari dagokionez, eta baieztatu egin beharko du enpresak ez duela kontratatzeko debekurik, eta informazio hori kontratu nagusia gauzatzean aldatzen bada, horren berri eman beharko du, bai eta enpresa azpikontratista berriei buruzko informazio berri guztia ere.<br><br>13.12.- KONTRATUA ALDATZEA. Kontratu hau interes publikoko arrazoiengatik aldatu ahal izango da bakarrik, ezaugarrien taulako Z) idatz zatian edo SPKLko 205. artikuluan ezartzen den bezala (kasuak eta modua), SPKLko 207. artikuluan arautzen den prozedurarekin bat eginez. SPKLko 242. artikulua eta HAKLAOko 158 - 162 bitarteko artikuluak ere aplikatu beharko dira.<br><br>Kasu hauetan, kontratazio organoak erabakitako aldaketak derrigorrezkoak izango dira enpresa kontratistarentzat; hala ere, 205. artikuluan zehazten diren kontratu aldaketak ez dira derrigorrezkoak izango, horiek derrigorrezkoak izateko gertatu behar baita banaka edo batera kontratuaren hasierako prezioa ez aldatzea ehuneko 20 baino gehiago, BEZ kanpo.<br><br>Obraren zuzendaritza fakultatiboak proiektua aldatu behar dela uste badu, baimena eskatuko dio kontratazio organoari bidezko espedientea hasteko eta proposamena idatziko du; proposamenarekin batera aldaketa justifikatzen, azaltzen eta baloratzen duten agiriak aurkeztu beharko ditu.<br><br>Aldaketa izapidetzeko obrak (batzuk edo denak) aldi batez eten behar badira eta horrek kalte handia egiten badio interes publikoari, kontratazio organoak behin-behinean obretan jarraitzea erabaki ahal izango du, zuzendaritza fakultatiboak egingo duen proposamen teknikoari lotuta, baldin eta aurreikusitako zenbatekoa kontratuaren hasierako prezioaren ehuneko 20 baino gehiago ez bada eta kreditu | artículo 215 de la LCSP, así como el pago a las empresas subcontratistas y suministradoras deberá ajustarse a lo dispuesto en el artículo 216 de la LCSP.<br><br>El porcentaje máximo de subcontratación será el establecido en el apartado Y) del Cuadro de Características, y si así señala en él las empresas licitadoras deberán indicar en la oferta la parte del contrato que tengan previsto subcontratar, señalando su importe, y el nombre o el perfil empresarial, definido por referencia a las condiciones de solvencia profesional o técnica, de las empresas subcontratistas a las que se vaya a encomendar su realización.<br><br>En todo caso, la empresa contratista deberá comunicar por escrito, tras la adjudicación del contrato y, a más tardar, cuando inicie la ejecución de este, al órgano de contratación la intención de celebrar los subcontratos, señalando la parte de la prestación que se pretende subcontratar y la identidad, datos de contacto y representante o representantes legales de la empresa subcontratista, y justificando suficientemente la aptitud de ésta para ejecutarla por referencia a los elementos técnicos y humanos de que dispone y a su experiencia, y acreditando que la misma no se encuentra incursa en prohibición de contratar, así como cualquier modificación que sufra esta información durante la ejecución del contrato principal, y toda la información necesaria sobre las nuevas empresas subcontratistas.<br><br>13.12.- MODIFICACIÓN DEL CONTRATO. El presente contrato sólo podrá ser modificado por razones de interés público en los casos y en la forma previstas en el apartado Z) del Cuadro de Características o en el artículo 205 de la LCSP y de acuerdo con el procedimiento regulado en el artículo 207 de la LCSP. Serán también de aplicación los artículos 242 de la LCSP y 158 a 162 del RGLCAP.<br><br>En estos casos, las modificaciones acordadas por el órgano de contratación serán obligatorias para la empresa contratista, excepto en los supuestos de modificación del contrato recogidos en el artículo 205, que únicamente serán obligatorias cuando impliquen, aisladas o conjuntamente, una alteración en su cuantía que no exceda del 20 por ciento del precio inicial del contrato, IVA excluido.<br><br>Cuando la Dirección Facultativa de la obra considere necesaria una modificación del proyecto, recabará del órgano de contratación autorización para iniciar el correspondiente expediente redactando la oportuna propuesta integrada por los documentos que justifiquen, describan y valoren aquélla.<br><br>Cuando la tramitación de una modificación exija la suspensión temporal, parcial, o total de la ejecución de las obras y ello ocasione graves perjuicios para el interés público, el órgano de contratación podrá acordar que continúen provisionalmente las mismas, tal y como esté prevista en la propuesta técnica que elabore la Dirección Facultativa, siempre que el importe máximo previsto no supere el 20 % del precio primitivo del contrato y exista crédito adecuado y suficiente para su financiación. |

| | |
|---|---|
| nahikoa eta egokia badago hura finantzatzeko.<br><br>Ez obren zuzendaritza fakultatiboak ez enpresa kontratistak ezin izango dituzte sartu ez egin aldaketak kontratuaren xede diren obretan, aurretik kontratazio organoak aldaketa eta haren ondoriozko aurrekontua onartu gabe.<br><br>Hala ere, aldaketa batzuk onarpena jaso gabe egin daitezke, hain zuzen ere benetan egindako unitateak aldatzea (proiektuko neurketetan ezarritakoak ez beste batzuk), baldin eta gastuaren gehikuntza kontratuaren hasierako prezioaren ehuneko 10 baino gehiago ez bada.<br><br>13.13.- KONTRATUA ETETEA. Honetaz SPKLko 208. artikuluan eta HAKLAOko 103., 170. eta 171. artikuluetan ezartzen dena aplikatuko da.<br><br>Kontratua aldi batez (zati bat edo dena) edo behin betiko eteten bada, etete akta egingo da (obren zuzendaritza fakultatiboak eta enpresa kontratistak sinatu behar dute) eta bertan honako datu hauek jaso behar dira: Tolosaldea Garatzenek kontratua eteteko hartutako erabakia, etetea eragin duten inguruabarrak, lanen burutzapena zertan den eta eteteak ukitzen dituen kontratuaren zatiak.<br><br>Etetea erabakitzen denean, Tolosaldea Garatzenek enpresa kontratistari jasandako kalte-galerak ordainduko dizkio SPKLko 208.2 artikuluan adierazitako arauekin bat eginez.<br><br>Tolosaldea Garatzenek obrak zortzi hilabete baino aldi luzeagoa etetea kontratua suntsiarazteko arrazoia da.<br><br>13.14.- OBRAK ONARTZEA. Obren onarpena SPKLko 210. eta 243. artikuluetan, HAKLAOko 163. artikuluan eta hurrengoetan eta administrazio baldintza orokorren agiriko 71. baldintzan eta hurrengoetan zehaztutakoarekin bat etorriz egingo da.<br><br>13.14.1.- Enpresa kontratistak obra oso-osorik egindakoan, kontratuan ezarri bezala, kontratua betetzat joko da, Tolosaldea Garatzen ados badago.<br><br>Enpresa kontratistak, edo beraren ordezkariak, idatziz jakinarazi behar dio obren zuzendaritza fakultatiboari obrak amaitzeko aurreikusitako data, berrogeita bost egun baliodun lehenago gutxienez.<br><br>Obra idatzizko jakinarazpena egindakoan onartuko da, gehienez ere kontratua bukatu eta hilabete pasatu aurretik, edo ezaugarrien taulako AA) idatz zatian ezartzen den aldian.<br><br>Onarpen akta egingo da eta egintzan aritzen diren pertsona guztiek sinatu behar dute. Akta horretan obrak ondo eta kontratuan ezarri bezala dauden argitu behar da. Hala izanez gero, zuzendaritza fakultatiboak obrak jasotzat emango ditu, eta ondoren berme aldia hasiko da.<br><br>Obrak onartzeko moduan ez badaude, aktan adieraziko da, | Ni la Dirección Facultativa de las obras ni la empresa contratista podrán introducir o ejecutar modificaciones en las obras comprendidas en el contrato sin la debida aprobación de la modificación y del presupuesto resultante como consecuencia de ella por el órgano de contratación.<br><br>No obstante, podrán introducirse variaciones sin necesidad de previa aprobación cuando éstas consistan en la alteración en el número de unidades realmente ejecutadas sobre las previstas en las mediciones del proyecto, siempre que no representen un incremento del gasto superior al 10% del precio primitivo del contrato.<br><br>13.13.- SUSPENSIÓN DEL CONTRATO. En materia de suspensión se estará a lo señalado en el artículo 208 de la LCSP y 103, 170 y 171 del RGLCAP.<br><br>En los supuestos de suspensión parcial o total, temporal o definitiva, se levantará la correspondiente Acta de Suspensión, que deberá ir firmada por la Dirección Facultativa de las obras y la empresa contratista, en la que se hará constar el acuerdo de Tolosaldea Garatzen que originó la suspensión, las circunstancias que la han ocasionado y la situación de hecho en la ejecución del contrato, definiéndose concretamente la parte o partes o la totalidad de las obras afectadas por aquélla.<br><br>Acordada la suspensión, Tolosaldea Garatzen abonará a la empresa contratista los daños y perjuicios efectivamente sufridos por ésta con sujeción a las reglas señaladas en el artículo 208.2 de la LCSP.<br><br>Es causa de resolución del contrato la suspensión de las obras por un plazo superior a ocho meses acordada por Tolosaldea Garatzen.<br><br>13.14.- RECEPCIÓN DE LAS OBRAS. La recepción de las obras se realizará conforme a lo dispuesto en los artículos 210 y 243 de la LCSP y 163 y siguientes del RGLCAP y en las cláusulas 71 y siguientes del PCAG.<br><br>13.14.1.- El contrato se entenderá cumplido por la empresa contratista cuando ésta haya realizado, de acuerdo con los términos del mismo y a satisfacción de Tolosaldea Garatzen, la totalidad de la obra.<br><br>La empresa contratista o su delegada comunicarán por escrito a la Dirección Facultativa de las obras, la fecha prevista para su terminación, con una antelación mínima de cuarenta y cinco días hábiles.<br><br>La recepción de la obra se realizará una vez efectuada la comunicación escrita y como máximo dentro del mes siguiente a su terminación, o en el plazo que se determine en el apartado AA) del Cuadro de Características.<br><br>De la recepción se extenderá la correspondiente acta, que será suscrita por todas las personas que concurran al acto, y en la que se hará constar si las obras se encuentran en buen estado y con arreglo a las prescripciones previstas, en cuyo caso la Dirección Facultativa de las obras las dará por recibidas, comenzando entonces el plazo de garantía.<br><br>Cuando las obras no se hallen en estado de ser recibidas se |

| | |
|---|---|
| eta zuzendaritza fakultatiboak ikusitako akatsak adieraziko ditu eta jarraibide zehatzak azalduko ditu; gainera, horiek konpontzeko epealdia ezarriko du. Epealdi horretan enpresa kontratistak zuzenketak egiten ez baditu, beste epealdi luzaezin bat eman ahal izango zaio, edo kontratua suntsiarazitzat jo ahal izango da. | hará constar así en el acta y la Dirección Facultativa de las mismas señalará los defectos observados y detallará las instrucciones precisas fijando un plazo para remediar aquellos. Si transcurrido dicho plazo la empresa contratista no lo hubiere efectuado, podrá concedérsele otro nuevo plazo improrrogable o declarar resuelto el contrato. |
| Ezaugarrien taulan obrak burutzeko epealdi partzialak ezarriz gero, Tolosaldea Garatzenek onarpen partzialak egin ahal izango ditu. | Tolosaldea Garatzen podrá efectuar recepciones parciales de las obras, en el caso de que se hubiese establecido en el Cuadro de Características la existencia de plazos de cumplimiento parcial. |
| Aparteko kasuetan, interes publikoa dela eta (arrazoiak azaldu behar dira) Tolosaldea Garatzenek obrak okupatzea edo herritarren erabilerarako zerbitzuan jartzea erabakitzen badu, nahiz eta onarpen egintza formalik izan ez, halako egintzen berezko ondorioak sortuko dira aparteko inguruabarrak gertatzen direnetik, arauz ezarritakoarekin bat etorriz. | Siempre que por razones excepcionales de interés público debidamente motivadas Tolosaldea Garatzen acuerde la ocupación efectiva de las obras o su puesta en servicio para el uso público, aún sin el cumplimiento del acto formal de recepción, desde que concurran dichas circunstancias se producirán los efectos y consecuencias propios del acto de recepción de las obras y en los términos en que reglamentariamente se establezcan. |
| 13.14.2.- Kontratazio organoak hiru hileko epealdia edukiko du onarpena egiten denetik egindako obren azken ziurtapena onartzeko. Ziurtapena enpresa kontratistari ordainduko zaio kontratuaren likidazioaren kontura. | 13.14.2.- Dentro del plazo de tres meses contados a partir de la recepción, el órgano de contratación deberá aprobar la certificación final de las obras ejecutadas, que será abonada a la empresa contratista a cuenta de la liquidación del contrato. |
| 13.15.- BERME ALDIA. Onarpen akta egiten denetik berme aldia hasiko da zenbatzen (ezaugarrien taulako AB) idatz zatian ezartzen da). Urtebetekoa izango da gutxienez, kasu berezietan izan ezik. Hala ere, obrak irauteko asmoarekin egin ez badira (zundaketak eta prospekzioak, esaterako), emaitza onik lortu ez badute edo artapenaz gaindiko lanak eragiten badituzte (dragatzea), ez da eskatuko berme aldirik. | 13.15.- PLAZO DE GARANTÍA. A partir de la fecha del acta de recepción, comenzará a contar el plazo de garantía que figura en el apartado AB) del Cuadro de Características, sin que pueda ser inferior a un año, salvo casos especiales. No obstante, en aquellas obras cuya perduración no tenga finalidad práctica como los sondeos y prospecciones que hayan resultado infructuosos o que por su naturaleza exijan trabajos que excedan del concepto de mera conservación como los de dragados no se exigirá. |
| Berme aldian enpresa kontratistak obraren akats eta bizioen erantzukizuna edukiko du. Gainera, obra artatu eta zaindu behar du baldintza teknikoen agirian ezarritakoari eta obren zuzendaritza fakultatiboak emandako jarraibideei lotuta. Obran gertatzen diren berezko kalteen erantzukizuna edukiko du. | Durante el plazo de garantía la empresa contratista será responsable por los defectos o vicios que puedan manifestarse en la obra, y asimismo, estará obligada a la guarda y conservación de la obra, con arreglo a lo previsto en el pliego de prescripciones técnicas y a las instrucciones que dicte la Dirección Facultativa de las obras, siendo responsable de los daños intrínsecos que en ella se produzcan. |
| 13.16.- LIKIDAZIOA. Berme aldia amaitu aurreko hamabost egunetan obraren zuzendaritza fakultatiboak, ofizioz zein enpresa kontratistak eskatuta, obraren egoerari buruzko txostena idatziko du, SPKLko 243.3 artikuluan eta HAKLAOko 169. artikuluan arautzen diren ondorioetarako. Hauek dira:<br>- Txostena aldekoa bada, enpresa kontratistak ez du geroztik inolako erantzukizunik edukiko, ezkutuko akatsengatikoaz besterik, eta bermea itzuliko zaio (edo kitatu egingo da), kontratua likidatuko da eta, beharrezkoa bada, ordaindu gabe dauden betebeharrak ordainduko dira.<br>- Txostena aldekoa ez bada eta antzemandako akatsak obra lanen ondoriozkoak badira, hau da, ez | 13.16.- LIQUIDACIÓN. Dentro del plazo de quince días anteriores al cumplimiento del plazo de garantía, la Dirección Facultativa de la obra, de oficio o a instancia de la empresa contratista, redactará un informe sobre el estado de las obras con los efectos señalados en los artículos 243.3 de la LCSP y 169 del RGLCAP, que son los siguientes:<br>- Si el informe fuera favorable, la empresa contratista quedará relevada de toda responsabilidad, salvo la responsabilidad por vicios ocultos, procediéndose a la devolución o cancelación de la garantía, a la liquidación del contrato y, en su caso, al pago de las obligaciones pendientes.<br>- En el caso de que el informe no fuera favorable y los defectos observados se debiesen a deficiencias |

| | |
|---|---|
| badira erabilerak sortuak, berme aldian zuzendaritza fakultatiboak bidezko jarraibideak eman ahal izango dizkio enpresa kontratistari eraikitakoa zuzentzeko, eta horretarako epealdia ezarriko dio. Epealdi horretan enpresa kontratistak obrak artatzen jarraitu beharko du, eta ez du dirurik batere jasoko berme aldia luzatzeagatik. | en la ejecución de las obras y no al uso de lo construido durante el plazo de garantía, la Dirección Facultativa procederá a dictar las oportunas instrucciones a la empresa contratista para la debida reparación de lo construido, concediéndole un plazo para ello durante el cual continuará encargada de la conservación de las obras, sin derecho a percibir cantidad alguna por ampliación del plazo de garantía. |
| Hala ere, obra berme aldia amaitutakoan narriatzen bada eraikuntzako ezkutuko akatsen erruz, hain zuzen ere enpresa kontratistak kontratua bete ez duelako, honek kalte-galeren erantzukizuna edukiko du hamabost urtean obra jasotzen denetik. | No obstante, si la obra se arruina con posterioridad a la expiración del plazo de garantía por vicios ocultos de la construcción, debido a incumplimiento del contrato por parte de la empresa contratista, responderá ésta de los daños y perjuicios durante el término de quince años a contar desde la recepción de la obra. |
| 13.17.- KONTRATUA SUNTSIARAZTEA. Kontratua SPKLko 211. eta 245. artikuluetan ezartzen diren kasuetan suntsiaraziko da. Kontratua suntsiaraztea kontratazio organoak erabakiko du, ofizioz zein enpresa kontratistak eskatuta (entzunaldia bermatu behar zaio). Suntsiarazpenak SPKLko 212., 213. eta 246. artikuluetan, HAKLAOko 110 - 113 bitarteko artikuluetan eta 172. artikuluan ezartzen diren ondorioak sortuko ditu. | 13.17.- RESOLUCIÓN DEL CONTRATO. La resolución del contrato tendrá lugar en los supuestos que se señalan en los artículos 211 y 245 de la LCSP y se acordará por el órgano de contratación, de oficio o a instancia de la empresa contratista, mediante procedimiento en el que se garantice la audiencia de ésta y con los efectos previstos en el artículo 212, 213 y 246 de la LCSP y 110 a 113 y 172 del RGLCAP. |
| Ezaugarrien taulako U) idatz zatian kontratua ez betetzeagatik zehapenak ezarri ezean, burutzapen baldintza bereziak, ezaugarrien taulako X) idatz zatian zehazten direnak, kontratuaren ezinbesteko betebeharrak izango dira SPKLko 211.f) artikuluan ezartzen denaren ondorioetarako. | Salvo que se hayan establecido penalidades por su incumplimiento en el apartado U) del Cuadro de Características, las condiciones especiales de ejecución especificadas en el apartado X) del Cuadro de Características tendrán carácter de obligaciones esenciales del contrato a efectos de lo previsto en el artículo 211.f) de la LCSP. |
| Halaber, ondorio horietarako, kontratuko funtsezko eginbehartzat emango da ezaugarrien taulako J) apartatuan eskatutako nahiko giza baliabide edo baliabide material atxikitzeko konpromisoa, bai eta 13.10 klausulan jasotzen diren exekuzio baldintzak ere. | Asimismo se considerarán a dichos efectos obligaciones esenciales del contrato, el compromiso de adscripción de medios personales o materiales suficientes exigido en el apartado J) del Cuadro de Características, así como las condiciones de ejecución recogidas en la cláusula 13.10. |
| Kontratua enpresa adjudikaziodunaren erruz suntsitzen bada, behin betiko bermea atxikiko zaio eta, gainera, bermearen zenbatekoak kalteak estaltzen ez baditu, kalte-galeren ordaina ere eskatuko zaio. | Cuando el contrato se resuelva por culpa de la empresa adjudicataria, le será incautada la garantía definitiva, sin perjuicio de la indemnización, en su caso, por daños y perjuicios originados a Tolosaldea Garatzen, en lo que excedan del importe de garantía incautada. |
| 13.18.- KONFIDENTZIALTASUNA. Agiri honen xedea gauzatzeko Administrazioaren titulartasuneko fitxategietako datu pertsonalak eta tratamenduak erabili behar badira, entitate adjudikaziodunak tratatu beharreko datuen tratamenduaren arduradun gisa jardungo du, bat etorriz Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2016ko apirilaren 27ko 2016/679 (EB) Erregelamenduak, datuen babesarenak (DBEO), 28. artikuluan eta Estatuan hura garatzen duen araudiak xedatutakoarekin. Konfidentzialtasunari buruzko klausuletan arautuko da nola tratatu behar dituzten hirugarrenek datu pertsonalak. Entitate adjudikaziodunak bete beharreko agirien ereduak agiri honen XII. eranskinean daude. | 13.18.- CONFIDENCIALIDAD. En el supuesto de que la ejecución de la prestación objeto del presente Pliego conlleve la necesidad de acceder a datos personales y a tratamientos contenidos en ficheros titularidad de la Administración, la entidad que resulte adjudicataria actuará en calidad de Encargado del Tratamiento de los datos objeto de tratamiento, habida cuenta de lo dispuesto en el artículo 28 del Reglamento (UE) 2016/679 del Parlamento Europeo y del Consejo, de 27 de abril de 2016 de Protección de Datos (RGPD), y en su normativa de desarrollo estatal. El tratamiento de datos de carácter personal por cuenta de terceros se regulará a través de las cláusulas de confidencialidad preceptivas. Los modelos de documentos a completar por la entidad adjudicataria se anexan al presente Pliego, en el Anexo XII.<br><br>Asimismo, sin perjuicio de las disposiciones de la LCSP |

| | |
|---|---|
| Era berean, adjudikazioaren publikotasunari eta enpresa hautagai eta lizitatzaileei eman beharreko informazioari buruzko SPKLko xedapenak albo batera utzi gabe, kontratazio organoak ezin izango du hedatu enpresek III. eranskinean konfidentzialtzat (sekretu tekniko edo komertzialak direla eta) jotako informazioa. Hala, enpresak arrazoitu egin beharko du zergatik diren konfidentzialak. | relativas a la publicidad de la adjudicación y a la información que deba darse a las empresas candidatas y a las licitadoras, el órgano de contratación no podrá divulgar la información facilitada por las empresas que éstas hayan designado como confidencial en el anexo III por razón de su vinculación a secretos técnicos o comerciales, exponiendo las razones que justifican dicha vinculación. |
| **VI.- IZAERA, ARAUBIDE JURIDIKOA ETA JURISDIKZIO ESKUDUNA** | **VI.-NATURALEZA, RÉGIMEN JURÍDICO Y JURISDICCIÓN COMPETENTE** |
| **14.- IZAERA ETA ARAUBIDE JURIDIKOA** | **14.- NATURALEZA Y RÉGIMEN JURÍDICO** |
| Klausulen agiri honen arabera egin behar den kontratua administrazio mailakoa izango da, eta kontratuan bertan zehazten ez den guztiari dagokionez, honako hauek bete beharko dira: Sektore Publikoko Kontratuen Legea; Herri Administrazioetako Kontratuen Legearen Erregelamendu Orokorra; eta kasuan kasu, Administrazio Publikoen kontratazioan aplika daitezkeen arauak. | El contrato que en base a este pliego se realice, tendrá carácter privado y en todo lo no previsto en él se estará a lo dispuesto en la LCSP, así como en el Reglamento General de la Ley de Contratos de las Administraciones Públicas, y demás normas que, en su caso, sean de aplicación a la contratación de las Administraciones Públicas. |
| Administrazio-klausulen Agiri honen eta espedientearekin batera doan dokumentazio teknikoaren artean kontraesanik izanez gero, agiri honetan zehaztutakoa nagusituko da. | En caso de contradicción entre el presente Pliego de Cláusulas Administrativas Particulares y el resto de la documentación técnica unida al expediente, prevalecerá lo dispuesto en este Pliego. |
| **15.- JURISDIKZIO ESKUDUNA** | **15.- JURISDICCIÓN COMPETENTE** |
| Kontratuen prestaketari, esleipenari eta aldaketei dagokienez, azken horien aurkaratzea SPKLren 204. eta 205. artikuluetan ezarritakoa ez betetzean oinarritzen bada, administrazioarekiko auzien jurisdikzioak izango du eskumena, aipatutako errekurtso berezia ebatzi ondoren, zeina nahitaezkoa izango baita ordena horretan aurkaratu aurreko izapide gisa. | En materia de preparación, adjudicación y modificaciones contractuales, cuando la impugnación de estas últimas se base en el incumplimiento de lo establecido en los artículos 204 y 205 de la LCSP, será competente el orden jurisdiccional contencioso-administrativo, previa la resolución del recurso especial citado, la interposición del cual tiene carácter obligatorio como trámite previo a la impugnación ante el citado orden. |
| Jurisdikzio zibila arduratuko da kontratua betearazteaz eta haren ondorioez. | De la ejecución del contrato y sus efectos deberá conocer la jurisdicción civil. |
| Esleipendunak berariaz uko egiten dio bere bizilekuaren foruari, eta sor daitezkeen gorabeherak eta erreklamazioak ebazteko eskumena duten Tolosako epaitegi eta auzitegien esku jartzen da. | La adjudicataria hace una renuncia expresa al fuero de su domicilio y se somete a los Juzgados y Tribunales de Tolosa que sean competentes para la resolución de cuantas incidencias y reclamaciones pudieran plantearse. |